



HIZKUNTZ JOLASAK



1-8

Tgl-26(3)

R. 1112

GLUTODIDAKTIKA-LANAK 15



GLOTODIDAKTIKA-LANAK 15

Prestatzaileak: Matilde Sainz eta Ibon Olaziregi
Marrazkiak: Almen Ikastetxeko ikasleak, etabar.
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Lehendakaritza Saila
Eusko Jaurlaritza
I.S.B.N.: 84-7542-065-6
Legezko gordailua: VI-253-84
Lehenengo Argitaraldia: 1984ko Maiatza

HIZKUNTZ JOLASAK

AURKIBIDEA

Orrialdea

HITZAURREA.....	11
-----------------	----

A.- ASMAKIZUNAK

1.- ERANTZUNAK EMAN	17
2.- IZENA ASMATU.....	17
3.- DASTATZEN	18
4.- NOR NAIZ NI?.....	19
5.- NORK IKUTU ZAITU?	20
6.- NON NAGO?	20
7.- HOTSİK ATERA GABE	23
8.- BURUKO MINA DUT.....	23
9.- ZER OTE DA?	24
10.- ZER ARI ZARA?	24
11.- LAGUN MUTUA	25
12.- TRESNA MAJIKOAK.....	25
13.- NORK DAUKA?.....	26
14.- ASMAKIZUN ERRAZAK	27
15.- BELARRIAK ERNE	28
16.- ZER ZEGOEN?.....	28
17.- PISTAK EMAN	29
18.- HAUR GALDUA	30
19.- KARTAK.....	31
20.- HITZAK BAZTERTU.....	33
21.- HEMEN DAGO	33
22.- PERTSONAIA IZKUTUA	34
23.- IRUDIAK ORDENATU	35
24.- ZERTAN DIRA DESBERDIN?	39
25.- ISILKA MISILKA.....	44
26.- BETIKO ASMAKIZUNAK	45
27.- LA HABANAKO UNTZIA	47
28.- IKUSI MAKUSI	47

B.- AGINDUZKOAK

29.- PANPIN JOLASAK.....	51
30.- NAHASTU GABE	53
31.- ERREGINA ZAHARRA	53
32.- PIRATAK ETA PRESOK	55
33.- JERONIMOK DIO	55
34.- ZIRKUITOA	56
35.- ITSUA GIDATU.....	57
36.- MARRAZTU ETA EZABATU	59
37.- IDATZIZKO AGINDUAK	62
38.- MARRAZKI DIRIJITUA	63
39.- AGINDU SOILAK	65

C.- ZORTEZKOAK

40.- ZAPATA HAU ZUREA DA	69
41.- NI NAIZ ZALDIA.....	70
42.- NIK EZ DUT MOKORIK.....	70
43.- NI EZ NAIZ ARBELERA JOAN.....	72
44.- ZURI KLERA EMAN DIZUT	74
45.- ZOTZ EGITEN	74

D.- ANTZEZTEKOAK

46.- EZTABAIDA.....	77
47.- TXAKURRA EROS EZAZU!.....	77
48.- ZAPATAK EROSTEN.....	78
49.- NON DA AINHOA?.....	79
50.- NOLAKO EGURALDIA DAGO?	80
51.- BAZKALTZERA!	80
52.- TAXI! TAXI!	82
53.- INTXAUSTIKO KATU ZAHARRAK TXIZA EGIN DU....	83
54.- ETXEKO LANAK.....	84
55.- ZU ARRAINA AL ZARA?.....	85
56.- NAUFRAGOAK	86
57.- BERANDU ETXERA	86
58.- TELEFONOZ HOTS EGITEN.....	87
59.- IKERKETA	88
60.- INFORMAZIO BULEGOA.....	90
61.- NORK BERE PAPERAK	91

E.- MEKANIKOAK

62.- NI TXAKURRA NAIZ	95
63.- PELOTA PASATUZ	95
64.- TRENAK	96
65.- EGURALDIAREN EGUTEGIA	97
66.- KATEA	98
67.- KLASIFIKAZIOA	99
68.- NONDIK BIDALI ZUTEN	101
69.- ZERGATIK?	102
70.- ESKAILERA	103
71.- ESALDI ZOROAK	105
72.- NAHI DUT	106
73.- KLABEAK	107
74.- HITZ KATEA	109

F.- KANTUAK

75.- ZER KOLORE DAUKAZU?	113
76.- KOXK ALA PIPITA?	113
77.- INGURUMARIKA: BIRA BIRA MONTE	114
78.- PUTZUKO LAMIA	115
79.- HITZ SORGINDUA	115
80.- DONOSTIATIK BILBORA	116
81.- TUXTUXKA	117
82.- SOKA-SALTOKA JOLASTEKOAK	117
83.- TXALOKA JOLASTEKOAK	118
84.- ETA BESTE BATZUK	119
85.- HOTSAK LANDU	119
86.- TXA-TXA-TXA	120
87.- BERTSOAK OSATZEN	121
88.- KANTAK ASMATU	122
89.- BERTSO ZOROA	122
90.- ESAERA ZAHARRAK	123
91.- AHOKORAPILOAK	124

G.- KONTAKIZUNAK

92.- HARITIK TIRA	127
93.- IPUIN ALDREBESAK	127
94.- KORRU ZOROA	133
95.- IPUIN BERRIA	134
96.- ARAZOA KONPONDU	135

97.- TESTUA ASMATU.....	136
98.- IRUDIEI TESTUA IPINI	137
99.- ALBISTE EMANKIZUNA.....	140
100.- KONTU -KONTARI.....	140
101.- GEZURRAK AURKITU	141
102.- HORI HORRELA BALITZ.....	144
103.- MARRAZKIZ IDATZI	145

H.- HAUSNARTZEKOAK

104.- HITZAK LOTU.....	155
105.- HITZ ARDATZA	156
106.- HITZ GILTZARRIA	157
107.- AURKAKOAK	158
108.- JEROGLIFIKOAK.....	160
109.- NOLA BUKATU HALA HASI	160
110.- AMAIERA AURKITZEN.....	161
111.- AUKERA EGIN	163
112.- BIKIAK	164
113.- BAKOITZARI BEREIA	165
114.- BESTE ERDIA AURKITU.....	166
115.- HITZ DOMINOA	168
116.- HITZ GURUTZATUAK.....	168
117.- ZUK BADUZU, ZUK EZ.....	169
118.- ESALDI ZUZENA IDATZI	170
119.- IZENBURUAK NAHASI	171
120.- TESTUA OSATU	172
121.- HITZ PUZZLEA.....	174
122.- NOLAKO PERTSONAIA	176

ZER LANDU JOLAS BAKOITZEAN.....	177
--	------------

BIBLIOGRAFIA	181
---------------------------	------------

HITZAURREA

Liburu hau gurasoei eta irakasleei zuzendua dago. Esku artean duzun hau jolas liburu bat da. Hizkuntz-jolasak dira barnekoak, euskara irakasteko, sakontzeko balio dezaketenak, baina beti ere jolasak.

Jolasak dibertitzeko behar du izan, bestela ez da jolasa. Horietariko batzuk berriak dira, beste batzuk berriz, handik eta hemendik jasoak eta arretaz egokituak.

Liburuetan aurkitzen diren jolas eta ariketek sarri duten oztopoa materialarena izaten da. Zenbait ekintzatarako beharrezko gertatzen dira, gutxien-gutxienez kartulinazko edo paperezko lagungarri batzuk. Material horrek eskatuko lukeen lan extra hori dela medio, egin gabe geratzen dira hainbat eta hainbat jolas. Hemen ematen diren jolas askok ez dute material berezirik eskatzen, aldez aurretik gaia piska bat prestatzea ez bada.

Baina hori aski ez den kasuetarako zenbait eraskin egin ditugu, jolasaren ondoan doazenak, eta nahi izan ezkeru fotokopiatu, ebaki, behar bada kartoitxoetan itsatsi eta besterik gabe erabil daitezkeenak. Eskulane-tarako denbora eta gogoia duzuenan marrazki hobeak egingo dituzue dudarik gabe. Beste zenbait jolasetako ilustrazioak apaingarri gisa ipini ditugu Almen ikastetxeko ikasle-irakasleek eskainitako laguntzari esker.

Ez dakigu zenbateraino hemen dituzuen jolas guzti-guzti hauek benetako jolastzat har daitezkeen. Gramatika kutsu nabariegia zutenak baztertzen ahalegindu gara. Halere agian batzuri ariketa disfrazatuen usaina darie oraindik. Haatik, haurrari aurkeztekotan, jolas bezala aurkeztu behar dizkiogu. Horrela, jolasak beregan ernarazten duen emozioak bultzaturik erantzun hobe emango bait digu.

Honek ez du esan nahi jolasak noiznahi eta nolanahi erabil daitezkeenik. Oso gogoan izango dugu jolas hau edo hura programatzerakoan lortu nahi duguna. Kasu batzutan egitura zehatz bat lantzea izango da, beste batzutan, beharbada, holako edo halako hurrek lotsa galdu eta hitz egin dezala, eta beti une lasai eta goxo batzuk dastatzea ximple-xinpleki.

Jolasaren bitartez haurra hitz egin behar duen egoera erreal eta nahiko natural batean murgiltzen dugu, hizkuntzaren eginkizun eta funtzioak benetan martxan ipintzen direlarik. Jolasak arrakasta izan dezan ordea jolaskideen ezaugarriak eta egoera oso kontuan hartu behar dira: zer adinetakoak diren, zer-nolako euskara maila duten, jostatzeko gogorik baduten, zer jolas mota komeniko litzaiekeen, etab.

Adinari dagokionez, zerbait orientatu asmoz hiru zeinuz baliatu gara:



= Eskolaurre eta Hasiera Ziklokoak (3tik 8 urte bitartekoak).



= Erdiko Ziklokoak (8tik 11 urte bitartekoak).



= Goiko Ziklokoak eta nagusiagoak (11tik gorakoak).

Dena dela oso eztabaidagarria izan daiteke mugatze hori. Haur txikiak guk uste baino bizkorragoak dira behin baino gehiagotan, eta aitzitik jolas sinpleena ere jende nagusia entusiasmatzeko gai izan daiteke. Irakaslearen eskutan gelditzen da bestalde, jolas bakoitza moldatzea, erraztuz, zailduz, sinpleagotuz, aldatuz, etabar. Eskaintzen ditugun aldaerak hori besterik ez dute egiten hainbat kasutan. Aldaera horiek aurkezterakoan jolas berriak balira bezala ematea komenigarria izan daiteke gainera, ikasleen motibazioa eta atentzioa berritu nahi badugu.

Jolasen ezaugarriei begiratzuz, eta nolabait banatzeko zortzi multzotan bildu ditugu:

A – ASMAKIZUNAK

B – AGINDUZKOAK

C – ZORTEZKOAK

D – ANTZEZTEKOAK

E – MEKANIKOAK

F – KANTUAK

G – KONTAKIZUNAK

H – HAUSNARTZEKOAK

Jolas batzuk, bistan dago, multzo batean zein bestean sar zitezkeen, baina azkenik toki batean bakarrik ipini ditugu, banaketa bera ez bait da helburu, lagungarri baizik.

Esan beharrik ez dago haurraren interesa eta arreta pizten duten jolasak erabili behar direla. Aukera egin behar da beraz. Jolasa aspergarria bada edo ilusiorik gabe agertzen bazaie, eta haurraren interesa erakartzen ez badu, jolas horrek ez du balio.

Euskara bigarren hizkuntza bezala ikasten duten hurrek badute iadanik gurasoekin eta lagunekin komunikatzeko hizkuntza bat: gaztelania. Horregatik bigarren hizkuntzaren irakastea jai handi baten ospakizuna bezala agertuko zaio. Ildo honetan jolasa jai horretako aktibitate zentralerako bat izan daiteke, partaidetasuna, mugimendua, emozioa, sorpresa, urduritasuna, misterioa,... bait dakartza berarekin. Bigarren hizkuntza ikastea (edo beste zernahi gauza ikastea edo irakastea) ez da gaizki pasatzea, aspertzea, sufritzea eta izugarritzko hitz jarioak jasatea.

Askotan haurrak nekatuta ikusten ditugu eta aktibitatez aldatu nahi izaten dugu. Hona hemen, hortaz, haurren interesa pizteko balio dezaketen elementuak. Zuk irakasle, zuk guraso, inork baino hobeto ezagutzen dituzu zure haurrak; aukera ezazu ba gehien interesatuko zaien jolasa, irakatsi nahi diezuna ere ahaztu gabe. Bi puntu hauek oso gogoan izan beharko dituzu.

EUSKARA ZERBITZUA

A.– ASMAKIZUNAK

1.- ERANTZUNAK EMAN



AZALPENA

Erantzun asko dituzten galderak pentsatu beharko ditugu, eta ahal bada gramatika puntu konkreturen bat lantzeko aprobetxatu.

Esate baterako erantzunean NORK kasua erabiltzea eskatzen duten galderak:

- *Zer aberek jaten du belarra?*

- Astoak
- Behiak
- Zaldiak
- Zebrak

Edota NON:

- *Zer tokitan egoten dira mahaia?*

- Etxean
- Tabernan
- Eskolan

Aditza:

- *Esan amak/aitak egiten dituen gauzak.*

- Garbitu
- Plantxatu
- Idatzi

- *Zertan aritzen dira baserritarrak?*

- Belarra ebakitzen
- Tomateak batzen
- Behiak jaisten

2.- IZENA ASMATU



MATERIALA:

Kartoitxoak egin. Aldizkarietatik ebakitako irudiak,... nahiz merkatuan dauden jolasen irudiak ere erabil daitezke.

AZALPENA

Kaja batean objeto desberdinen irudiak dituzten kartoitxoak sartzen dira. Ikasleak, bat atera behar du eta haren izena asmatu.

Jolas honetan bi ekiporen arteko lehiaketa egin daiteke txandaka, lehenik batek eta gero besteak kartoitxoak ateratzen dituztela.

Alderantziz ere egin daiteke. Hau da, izena esan eta irudia bilatu behar izatea.

Interesgune desberdinei erantzuten dien hiztegia erabil daiteke.



ALDAERA

Jolasa zaildu nahi badugu, kartoitxoa ateratzen duen haurrak atera duen irudiari buruzko ezaugarri batzuk esango ditu. Gelako besteek asmatu egin beharko dute zein den objektua. Asmatzen duenak aterako du hurrengo kartoitxoa.



3.- DASTATZEN

MATERIALA:

Jangaiak (gatza, azukrea, irina, kafea, ozpina, ura, limoia,...)

AZALPENA

Haur batek bazkaltzera deituko die besteei. Mahaikideak eseri bezain laster, begiak estaliko zaizkie, eta bakoitzari dastatzeko zerbati eman (gatza, azukrea, limoia, ozpina, ura, kafea,...). Haur bakoitzak dastamenaz asmatu beharko du zer den, eta atsegin zaion ala ez, baita gozoa, geza, gazia, garratza, ala mingotsa den.



4.- NOR NAIZ NI?

AZALPENA

Haur bati begiak tapatzen zaizkio edo hormaren kontra jartzen da ezer ez ikusteko moduan. Besteak banan bana igarotzen dira atzetik *"nor naiz ni?"* edo beste zerbait esanez. Ahotsa alda dezakete. Ikusten ez duenak asmatu egin behar du.

- *Nor naiz ni?*
- *Zu Andoni zara!*

Asmatuz gero, bestea ipintzen da hormaren kontra eta berdin jarraitzen du jolasak.

- *Ni Errege zahar bat naiz!*
- *Zu Igor zara!*



"Itsua" galderak egin ditzake, besteari hitz egin arazteko:

- *Non bizi zara?*
- *Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?*
- *Zer egiten duzu jolasaldietan?*

Jolasa zaildu nahi badugu, "itsuak" hiru galdera egin beharko ditu derrigorrez eta gero izena asmatzen saiatu.



5.- NORK IKUTU ZAITU?

AZALPENA

Ikasle bat paretaren kontra jartzen da, besoak begien parean dituela, ezer ez ikusteko. Atzean beste hiru lagun ditu. Hauek beren izenak esango dituzte:

- *Ni Iñigo naiz.*
- *Ni Sabin.*
- *Eta ni Edurne.*

Hirutako batek atzetik ikutzen du, eta honela galdegiten zaio:

- *Nork ikutu zaitu?*
- *Iñigok ikutu nau.*
- *Ez, ez da Iñigo izan.*

Lehenengotik asmatzen badu ikutzailea ipiniko da hormaren kontra. Bestela beste batek ikutuko du berriro.



6.- NON NAGO?



MATERIALA:



Etxeko zatien edo herriko leku desberdinen irudiak.

AZALPENA

Etxeko zatien, edo herriko leku desberdinen irudiak banatzen dira ikasleen artean. Gero batek "Non nago?" galdegin eta beste batek asmatu egin behar du galdetu duenari tokatu zaion irudia.

- komunean
- gelan
- sukaldean
- tximinian
- leihoan
- armairuan
- ...





7.- HOTSİK ATERA GABE



MATERIALA:

Hitz egokien zerrenda prestatu.

AZALPENA

Irakasleak edo haur batek hitz bat esaten du ezpainak mugiturik, baina batere soinurik egin gabe. Besteek zein hitz den asmatu behar dute.

Hona hemen hitz posible batzuren zerrenda:

- pinpilinpauza
- belardia
- zenbatgarrena
- ezezaguna
- eserlekua
- perretxikua
- izkina

8.- TRIPAKO MINA DUT



AZALPENA

Ikasleak nonbaiteko mina duela adieraziko du mimikaz. Beste batek nongo mina duen esan beharko du.

- Iñigok begietako mina du.
- Inesek buruko mina du.
- Pilik belarriko mina du.
- Jonek tripako mina du.





9.- ZER OTE DA?

MATERIALA:

Gelan dauden tresnak erabil daitezke.

AZALPENA

Objetu bat zorro batean sartu eta ikasleari emango zaio. Hark ondo ukitu ondoren, zer den asmatu behar du.

Zorrorik gabe ere egin daiteke, objetua ikasleari atzetik emanaz, ikus ez dezan.



10.- ZER ARI ZARA?

AZALPENA

Ikasle bakoitzari ekintza bat erantsiko diogu.

- Eskobatu
- Lo egin
- Platerak garbitu
- Ikasi
- Kantatu
- Dantzatu
- ...

Gero, ikasle batek besteari “Zer ari zara?” galdetuko dio. Bigarrenak mimika bidez adierazi beharko du bere ekintza, besteak asmatu arte:

- *Ez dakit zertan zabiltzan!*
- *A! Eskobatzen ari zara!*



11.- LAGUN MUTUA



AZALPENA

Ikasle batek mutuaren papera egingo du, eta mimika bidez erantzun-go ditu besteen galderak.

Baietz edo ezetz erantzun behar diren galderek ez dute batere zailtasunik, baina honelakoak lan gehiago emango diote "mutuari":

- *Zer moduz zaude?*
- *Zenbat anai-arreba zarate?*
- *Non bizi zara?*
- *Zer asignatura gustatzen zaizu gehien?*
- *Zer kirol da gehien gustatzen zaizuna?*
- *Zer bazkaldu duzu gaur?*
- *Zer egingo duzu gero?*
- *Norekin ibiltzen zara kolean?*
- *Zer egiten duzu hotza dagoenean?*
- *Zer egiten du irakasleak?*
- *Nolakoak dira elefanteen belarriak?*
- ...

12.- TRESNA MAJIKOAK



MATERIALA:

Gelan dagoen materiala erabil daiteke: lapitza, baloia, soka,...

AZALPENA

Lapitza hartu eta gogoratzen zaigun beste edozer gauza balitz bezala erabiliko dugu. Beste batek asmatu egin beharko du zer adierazi nahi dugun.

Esate baterako lapitza basapean ipintzen badugu, termometroa izan daiteke. Berdin-berdin irudika daitezke:

- Orrazia
- Batuta
- Telefonoa
- Kohetea
- Motoa
- ...



Jolas bera baloiaz, sokaz, nahiz beste tresna batekin irudika daiteke.

SOKA

- sugea
- mangera
- trena
- eskailera
- kablea
- hodia
- erregela
- lapitza

BALOIA

- laranja
- sagarra
- gorpila
- eguzkia
- bonbila
- botoia
- tomatea
- patata



13.- NORK DAUKA?

MATERIALA:

Txartelak. Plastika orduan prestatu daitezke, edo merkatuan dauden beste jolasenak aprobatxatu.


AZALPENA

Jokalari hainbat txartel egin behar dira lehenik. Txartel bakoitzak marrazki bat izango du alde batetik, eta bestetik esaldi idatzi bat. Esaldi horrek ez du marrazkiarekin zerikusirik izango, baina beste txartel bateko marrazkiari egingo dio erreferentzia.

Ikasle batek bere esaldia irakurtzen duenean, beste guztiak ulertzen saiatu behar dute eta bere marrazkiari dagokion konprobatzen.

A.- *Etxeko tximiniatik kea ateratzen da.*



B.- *Nik daukat! Hau da!*



Esaldiak asmakizun antzekoak badira jolasa zailtxeago izango da, baina interes handiagoa.

A.- *Lau hanka ditu eta jezartzeko balio du.*

B.- Nik dut! Aulkia da!



14.- ASMAKIZUN ERRAZAK



MATERIALA:


Asmakizunak prestatu.

AZALPENA

Asmakizun zahar eta betiko horiez aparte, irakasleak nahiko erraz asma ditzake asmakizun antzeko esaldi errazak. Aski da gauza ezagun bat deskribatzea:

- a) *“Edateko balio du, kolore zuria du eta behiek ematen dute. Zer da?”*
- b) *Hegan egiten badaki, baina ez du arnasarik hartzen. Zer da?*

Haurrek ere idatziz presta ditzakete honelako asmakizun errazak.





15.– BELARRIAK ERNE

MATERIALA:

Kartoitxoak.

AZALPENA

“NORK DAUKA?” (13.) jolasean aipatzen diren kartoitxoak banatuko dira ikasleen artean, bakoitzari hiruzpalau tokatzen zaizkiolarik.

Irakasleak irudietako objetuen izenak esango ditu baina esaldi baten barruan.

- Aneri ez zaio gustatzen erosi dioten **soineko** berria.
- *Nik, nik daukat soinekoa.*
- **Eguzkitan** jarritz gero berotu egiten zara.
- *Nik, nik daukat eguzkia.*
- Mikeli ez zaio **arraina** gustatzen, horregatik beti okela jaten du.
- *Nik, nik daukat arraina.*



16.– ZER ZEGOEN?

MATERIALA:

Merkatuan dauden hormirudiak erabil daitezke.

AZALPENA

Hormirudi bat erakusten zaie ikasleei. Bertan azaltzen diren gauzen izenak asmatu beharko dituzte. Gero begien bistatik kenduko diegu irudia. Ea zenbat gauzaz gogoratzen diren!

Izenekin egiten den bezalaxe ekintzekin ere egin daiteke, hots aditzekin.

Nahi izan ezker denbora jakin batean utziko dugu hormirudia agerian ikasleek ahalik eta xehetasun gehienak harrapa ditzaten, baina bakoitzak bere kontura eta isilean. Gero, irudia gordetakoan esan edo idatziko dituzte gogoan dituzten izenak.

17.- PISTAK EMAN




AZALPENA

Gauza batean pentsatu behar du jolaskide batek. Besteek galderak egingo dituzte, baina erantzuna BAI edo EZ bakarrik izan daiteke.

Adibidez, eman dezagun BONBILA hitza pentsatzen dugula.

Galderak:

- *Gela honetan dago?*
- *Oso handia da?*
- *Denok daukagu?*
- *Egurrezkoa da?*
- ...



Asmatzen oso zaila gertatzen bada, beste argibideak ere emango dira. Esate baterako:

- *"Goiko aldean dago"*
- *"Arratsaldean behar izaten da"*



18.- HAUR GALDUA

AZALPENA



Gelako bat udaltzain izendatzen da eta gelatik kanpora irten arazten da piska batean. Bitartean "haur galdua" nor izango den erabakitzen da. Behin hori erabakita dagoenean udaltzainari berriro sartzeko esango diogu, eta haur bat galdu dela adieraziko:

- *Jauna, haur bat galdu da. Aurkituko duzu?*
- *Tira, tira, nolakoa da haur hori?*

Gainerako lagunek "haur galduaren" ezaugarriak emango dizkiote,

- *Jertse horia du*
- *Ile beltza du*
- *Kale Nagusian bizi da*

baina sekula izenik eman gabe; izena udaltzainak asmatu behar du.



Ematen zaion ezaugarri bakoitzaren ondoren goardiak izena asmatzeko aukera dauka.

Hiztegi hau baliagarri izan daiteke:

Soineko Alkandora Jertse Praka Gona	horia berdea urdina beltza ...	manga	mozduna luzeduna ... motzak luzeak	loreduna laukiduna kolore batekoa
Ile	beltza gorria ...	kixkurra lisua	luzea motza	askatua lotua
Begi	argiak ilunak gaztain kolorekoak		haundiak txikiak	biribilak luzexkak

19.- KARTAK



MATERIALA:









36 karta (ikus marrazkia), irudi bakoitza lau koloretan margotua.

AZALPENA

36 karta (edo 4ren multiplo bat) egiten dira.

Marrazki bakoitza lau aldiz errepikatua dago baina kolore ezberdinetan. Irudi bera lau koloretan edukitzea da jokalariek lortu beharko dutena. Horretarako beste bati eskatuko diote falta zaien karta bat. Azken honek karta ez badauka eskatzeko txanda izango du.

lau kolore



20.– HITZAK BAZTERTU



MATERIALA:

Hitz multzoak prestatu.

AZALPENA

Beren artean erlazioa duten hitzen multzoak ematen zaizkio ikasleari. Baina hitzen bat baztertzea izango da.

- aita - ama - anaia - arreba - mahaia (Baztertzea: MAHAIA)
- zuhaitza - hostoa - belarra - enborra - arkatza (Baztertzea: ARKATZA)
- zerua - izarra - bizarra - eguzkia - hodeia
- pagoa - pinua - lizarra - ahoa - zumarra
- gona - alkandora - oinetakoa - galtza - gatz - prakak
- euria - txingorra - elurra - egurra - zaparrada - tximista
- lo - loti - lotu - logela - logura
- garai - garbi - garden - txukun - dotore - eder
- lasai - mantso - bare - astiro - alai - poliki
- ugari - franko - asko - trebe - dexente
- eliza - gaztelua - etxea - mahaia - jauregia - dorrea

21.– HEMEN EZ DAGO



MATERIALA:

Pistak aldeztu aurretik prestatzea.

AZALPENA

Ikasle talde txiki batek objektu batean pentsatzen du. Gero pista txiki bat ematen dute:

– *Hemen ez da baina Bilbon bai.*

Eta hortik aurrera gelako beste lagunek zer gauza den asmatu behar dute.

Taldeak pista batzuk prestatu ditzake aurretik, gero inprobisatzen ez ibiltzeko:

- *Gela asko ditu.*
- *Jende asko bizi da.*
- *Han ez da oso ondo egoten.*
- *Telebista ikusi liteke.*
- *Jeneralean ohera eramaten dizute gosaria.*

Horrela norbaitek asmatzen duen arte: *HOSPITALA!*

Asmatzaileek ere galderak egiteko eskubidea izango dute.

22.– PERTSONAIA IZKUTUA



AZALPENA

Ikasle batek pertsona famatu eta ezagun baten itxura egin behar du. Beste lagun batzuek galderak egingo dizkiote nor den asmatu arte. Itxura egiten ari denak “pertsonaia izkutuaren” ezaugarri nabarmenenak ezagutu behar ditu. Hori, nahi bada, aldeztu aurretik presta liteke talde-lanean.

- *Zer zara gizona ala emakumea?*
- *Gizona.*
- *Oraindik bizi zara edo hil zinen?*
- *Hila nago.*
- *Gerran ibili zinen?*
- *Bai.*
- ...

Galderak hitz laburrez erantzuten dira edo, nahi izanez gero, erantzunik gabe utzi.

ALDAERA

Joku bera egin daiteke animalia baten bat aukeratuz, edo beste edozein gauza pertsonifikatuz.

Adibidez:

- *Pertsona zara?*
- *Ez.*
- *Animalia zara?*
- *Ez.*
- *Etxe barruan bizi zara?*
- *Bai.*
- *Geldi egoten zara ala mugitzen zaituzte?*
- *Mugitzen naute.*
- *Armarioaren barruan egoten zara?*

- *Batzutan, beti ez.*
- *Bazkariak prestatzeko erabiltzen zaituzte?*
- *Bai!*
- *Kirten luzea duzu?*
- *Bai!*
- *Zartagina!!*
- *Bai, hori da!! Asmatu duzu!*

23.– IRUDIAK ORDENATU



MATERIALA:

Baraien artean, nahiko antza duten irudi bikoteak marraztu.





AZALPENA

Ikasle batek irudiak zer ordenatan ipini behar diren adierazi behar dio beste lagun bati irudiak deskribatuz. Honetarako biak izango dute eskuartean irudi sail berdina, baina lehenengoak ordenaturik daukan bitartean, bigarrenak irudi solteak izango ditu.



Irudiek beren artean zenbat eta antza handiagoa izan hainbat eta zailago izango da hitzez bata bestetik berezte.

Hona hemen adibide batzuk:

a)




b)



Edo sail luzeagoak eta irudi antzekoagoak erabiliz:

c)



24.-ZERTAN DIRA DESBERDIN?




MATERIALA:

- a) Egunkarietako "Desberdintasunak aurkitu" direlakoak aukeratu.
- b) Marrazki egokiak fotokopiatu ondoren, zehaztasun batzuk aldatu.
- c) Marrazki originalak egin.
- d) Osatu gabeko marrazkiak egin.

AZALPENA (a, b eta c)

Bikoteka egiten da. Bikoteko ikasle bakoitzak irudi bana du. Bi irudiak oso antzekoak dira. Irudia deskribatuz diferentziak zein diren asmatzera iritsi behar dute.


a)



(*"Ipurbeltz"etik hartua*)

b)



GARBIGAILUAK NOLA FUNZIONATZEN DU?



GARBIGAILUAK NOLA FUNZIONATZEN DU?



("Ipurbeltz"etik hartua eta egokitua)



("Ipurbeltz"etik hartua eta egokitua)

c) Irudian agertzen diren pertsonaien izenak eman gabe, haurrak perpausa korapilatsuak erabili beharko ditu.



Gelan honen antzeko elkarrizketa sortuko da:

Nekane: *Nik hiru haurren irudia dut.*

Alex: *Nik ere bai.*

Nekane: *Ile kixkurra duen mutikoa ezkerraldean dago.*

Alex: *Nerean ez, ile kixkurdun mutila erdian dago.*

Nekane: *Lau iledun mutikoa erdian dago.*

Alex: *A..., ba nerean ez, ez dago erdian, ezkerraldean dago.*

Nekane: *Ba, nere irudian ile tenteak pajarita haundi bat du.*

Alex: *Nerean ez, nerean botoidun jantzia du, pajarita ile kixkurak darama.*

Nekane: *A..., ba nerean botoidun txaketa ile kixkurak darama.*

ALDAERA

Izenak emanik perpausa xumeagoak erabiliko ditu ikasleak.

- *Josuk botoidun jantzia du.*
- *Beñat haserre dago.*
- *Amaiak begiak itxita dauzka.*
- ...

d) AZALPENA

Osatu gabeko marrazki bana emango diegu ikasleei. Haur bakoitzak irakasleak esandakoari kasu eginez eta inorekin kontsultatu gabe, marrazkia osatu beharko du.

Horrela: *Marrazkigileari marrazkia bukatzea ahaztu zaio, marraztuz joan poliki-poliki nik esango dizuedana.*



- Beñatek ez du ilerik, marraztu iezaiozue nahi duzuen bezala: luzea, motza, lisoa, kixkurra,...
- Beñat eskua luzatzen ari da, baina zer du eskuan? Zer falta zaio Beñati eskuan? Marraztu.
- Beñatek zerbait ematen dio norbaiti, baina nori ematen dio? Nor dago Beñatekin? Marraztu.
- Zeru aldean ez da ezer ikusten, Zer dago? Marraztu.

Ondoren ikasle bat, marrazkia erakutsi gabe, deskribatuz joango da. Haurrek behatza jasoko dute era desberdinez osatu duten bakoitzean. Desberdintasunak komentatuko dira.

- Adib.:
- *Nik Beñati ile kixkurra eta motza jarri diot.*
 - *Ba nik ez, nik lisoa eta luzea.*
 - *Nik zeruan bi hodei marraztu ditut.*
 - *Ba nik ez, nik eguzkia marraztu dut eskumaldean.*
 - ...





25.- ISILKA MISILKA

MATERIALA:

Hitz egokien zerrenda prestatu.

AZALPENA

Haurrak borobilean jartzen dira, batek esaten dio bere eskumakoari belarrira eta isilean hitz korapilatsuren bat, bigarrenak hirugarrenari, eta honela bira osoa eman arte. Azkenik hasi duenaren belarritara heltzen da hitza, eta honek kritika egingo du, hots, haserako hitza den ala deformatuz joan den beste hitz desberdin bat eman arte.



Hona hemen hitz posible batzuren zerrenda:

amorragarri
entzutetsu
gamelutxo
isilarazi
tontotzat
beldurgarri
saltsa-maltsa

bidaiari
bizileku
ipuinzale
kakalardo
takarraran
matrailgorri
sudurluze

hankaoker
trinkulun-trankulun
nahaste-borraste
isilka-misilka
lorez-lore


Esaldi osoekin ere jolas daiteke:

- Andres, mandres umia negarrez
- Plentziako plazan txapel txapal bat galdu da
- Sator muturluze bat trabatu da traktorean
- Lapurdin Permin prest duzu, Serapin
- Haginetako mina zuen Perminak


26.- BETIKO ASMAKIZUNAK



- Kenduz haunditzen dena - (**Zuloa**)
- Beti haunditzen ari eta hala ere lekutik ez mugitzen - (**Arbola**)



- Jaun bat lepoarekin eta buru gabe, bi besoekin eta zango gabe (**Alkandora**)
- Bizarra badu, eta ez da gizona, xuria da eta ez da oihala, berdea da eta ez da belarra - (**Kipula**)
- Ikusten dut, ondoan dut, eta ezin atzeman - (**Itzala**)
- Balio ez jateko eta hura barik ezin bizi - (**Airea**)
- Arbola batek hamabi adar, adar bakoitzak lau habia, habia bakoitzak zazpi arraultza. (**Urtea**)
- Beti sutan eta sekulan ez erretzen - (**Labea**)
- Basoan jaio ta basoan hazi, etxeko salan dantzan hasi - (**Erratza**)



- Txaleko gorria, tripa hezurrezkoa, eta hanka zurezkoa - (**Gerezia**)

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)

27.– LA HABANAKO UNTZIA



AZALPENA

Batek esaten du: “La Habanatik untzi bat etorri da eta ekarri ditu... BOTILAK”.

Besteek “b” letraz hasten diren hitzak asmatu behar dituzte: baleak, belarrak, basoak, botak,...

28.– IKUSI-MAKUSI



Oso erraza da. Ez du azalpen beharrik.

- *Ikusi Makusi*
- *Zer ikusi?*
- *Ikusten dut, ikusten dut: SA-*
- *Sarea*

ALDAERA

Silaba osoa eman beharrean lehenengo letra bakarrik eman daiteke:

- Sss... (Sarea)
- Ggg... (Ganbara)

B.– AGINDUZKOAK

29.- PANPIN JOLASA



MATERIALA:

Haurrek etxetik ekar ditzaketen jostailuak. Ikus marrazkia.

AZALPENA

Panpinak, jostailuzko kotxeak, kamioiak, etxeak etabar aprobetxa daitezke jolas hau egiteko. Gauza guzti horiekin herri txiki bat osatuko dugu. Irudimenezko herri honetan gelan bertan pentsa ezin daitezkeen aginduak sortuko dira:

- *Mutila dendara doa.*
- *Kotxeak neska harrapatu du.*
- *Kotxeak kamioia aurreratu du.*
- *Igor plazara doa.*
- ...







ALDAERA

Jolas bera plastika aktibitatea aprobetxatuz egin daiteke:

- a) Ikasleari paper batean, hainbat jostailuren irudiak emango zaizkio (panpina, autoa, etxea, kamioia, mutikoa, neska, zuhaitza,...).
- b) Ikasleak margotu eta moztu egingo ditu.
- c) Ondoren eta irakasleak agindutako ordenan, ikasleak irudiak paper batean itsatsiko ditu. Aginduak bai ahoz bai idatziz eman daitezke.
- d) Ikasleek txandatzuz egin duten konposaketari buruzko kontakizun desberdinak asmatuko dituzte.

ALDAERA

Jolas berdina taldeka egin daiteke irudi haundiagoak erabiliz eta taldeko denon artean hormairudi bat osatuz. Ondoren, taldeko guztien artean asmatu beharko dute kontakizuna.



30.- NAHASTU GABE




AZALPENA

Irakasleak agindu laburrak emango ditu eta aldi berean berak ere beteko ditu:

- *Zutik!*
- *Belauniko!*
- *Eskua gora!*

Baina nahi duenean gauza bat agindu eta beste ekintza bat egin dezake irakasleak. Ikasleek orduan esandakoari egin behar diote kasu, ez irakasleak egin duenari.

Irakasleak, esate baterako “*Besoa gora!*” esan dezake hanka altxatzen duen bitartean. Ikasleek besoa altxa beharko dute eta ez hanka.



31.- ERREGINA ZAHARRA




AZALPENA

Ikasle batek erreginaren papera egingo du eta besteei nahi dituen aginduak emango dizkie.

Ikasleek antzerki modura aginduak betetzen joango dira.

*Ni Erregina xahar-xahar bat naiz.
Ia ezin nahiz ibili ere. Horregatik
ekarri behar didazue nahi dudan
guztia eta nere aginduak bete:*

- *Jone! Sukaldera joan eta bazkaria ekarri!*
- *Aitor, mahaia zikin hau hemendik atera eta beste bat ekarri. Har ezazu laguntzaileren bat!*



- *Maider, tori eraztun hau eta jar iezaiozu eskumako hankako behatz txikienean nire zerbitzari onenari.*
- *Altxa zaitezte denok, eta berriro eseri baino lehen, errepika ezazue hiru aldiz eta besoak altxata:*
–MUNDUKO ERREGINARIK ONENA ZARA, PETRALIN–
- *Peru, gaur ez dugu zer bazkaldu, oihanera joan eta ekarri, nik hamar kontatu baino lehen, gaur bazkaltzeko animaliairen bat.*
- *Kattalin, zeruan dagoen izar berde hori atsegin zait, eskailera hartu eta ekarri iezadazu ni zutitu baino lehen.*

Ikasleei "agindu" eredu batzu eman ondoren, ikasleek asma ditzakete aginduak.

32.– PIRATAK ETA PRESOAK



MATERIALA:

Zirkuito erakargarriak prestatu.

AZALPENA

Piratek itsasontzi bati erasotzen diote. Marinelak preso hartu eta beren gordeleku sekretura eramaten dituzte, baina begiak itxita. Piratek bidea azaldu behar diete presoiei:

- *Aurrean enbor erori bat dago, salto handi bat egin, eup!*
- *Kontuz zulo bat dago hor!*
- *Har ezazu makila hau (makila bat eskaintzen zaio) zure aurrean suge burrukalari bat dago eta.*
- *Orain ibaia zeharkatu behar duzu (Hotsa atera).*
- *Ia, iritsi gara gordeleku sekretura, geldi hor!*
- *Makurtu atetik sartzeko.*
- *Etzan zure ohean lotu egin behar zaitugu eta.*
- *Tori, edan suge-salda hau, oso gozoa dago eta.*

33.– JERONIMOK DIO



MATERIALA:

Aginduak prestatu.

AZALPENA

Aginduak ematen dituen ikasleak Jeronimo indioaren itxura hartzen du:

“Jeronimok dio: ezkerreko eskua gora”

“Jeronimok dio: hatz lodia behera”

Beste guztiek obeditu egin behar dute. Baina kontuz:

“Lurrean eseri” edo antzeko agindu soilei ez zaie kasurik egin behar, sarrera moduan *“Jeronimok dio:”* esan behar bait da aginduak benetako balioa izateko.

Jolas hau azkar egiteko da, horrela errazago nahas daitezke haurrak.



34.- ZIRKUITOA

MATERIALA:

Zirkuitoak asmatu, ez da ezer berezirik behar, gelan dauden tresnekin molda daitezke.

AZALPENA

Aulkiak gelan banaturik zirkuito polita osa dezakegu. Gero aginduak ematen dituenak erabakiko du besteren batek egin behar duen bidea:

- *Aulki horren gainera igo!*
- *Hurrengoaren ezkerretik pasa!*
- *Orain atzeraka!*

Koloretako aroak erabiliz ere konbinazioak sortzen dira:

- *Sar zaitez aro berdearen barruan!*
- *Salto egin aro gorria!*
- *Hanka bat aro horian sartu eta bestea urdinean!*

Hona hemen zirkuito posible bat:

Lehenengo iladan hiru aulki jartzen dira bata bestearen ondoan, atzerago aulki bakar bat erdian.

Ikasleari honako agindu hauek emango zaizkio banan banan, eta poliki.

- Erdian dagoen aulkira igo ondoren besoak altxa.*
- Orain pentsa txori bat zarela, hegaz hasi eta lurrera erori.*
- Aulki bakarrari hiru buelta eman ezkerretik hasita motorrez joango bazina bezala.*
- Orain bueltatu zaitez hasierako puntura, baina kontuz, arrastaka bueltatu beharko duzu, bide honetan, oso tunel estua dago eta.*

35.- ITSUA GIDATU



MATERIALA:

Aginduekin batera, itinerario bitxiak asmatuz.

AZALPENA

Ikasle bati begiak tapatzen zaizkio eta beste batek ematen dizkion aginduak betetzen saiatu behar du.

Oso agindu errazak emango dizkiogu hasieran:

- *Aurrera joan!*
- *Atzeraka ibili!*
- *Ezkerretara!*
- *Eskubitara!*
- *Makurtu!*
- *Salto egin!*
- *Besoak altxa!*
- *Hanka bat altxa!*



Gero zailtasun handiagoko aginduak eman genitzake.

Zailtasuna hizkuntz mailakoa nahiz ekintza mailakoa izan daiteke, hots haur bati esaten badiogu: "Hanka baten gainean ibili". Behar bada ez dago zailtasuna ulermen mailan, ekintzan baizik. Bestalde haurrari jokua atsegingarria gerta dakion, ekintza bitxiak, farregarriak,... izan daitezen ahaleginduko gara.

- *Aurrera joan atzera begira*
- *Eskerretara joan niri begira.*
- *Makurtu besoak altxata*
- *Hanka bat altxa zure izena esaten duzun bitartean*
- *Mingaina atera dantzan ari zarela*
- *Begiak itxi eta eskumako besoa altxa ahoa irikitzen duzun bitartean*
- *Aurrean daukazun mahaiaren gainean dagoen koaderno har ezazu!*
- *Txaloak jo ahal duzun zarata haundiena ateratzen duzularik begi bat ixten duzun bitartean.*

36.- MARRAZTU ETA EZABATU



MATERIALA:

Talde jolaserako arbela.


Banakako jolaserako laukitxoetan banatutako orri bana.

AZALPENA

Irakasleak marrazki sinpleak egin araziko dizkie ikasleei arbelean:

- *Julen, etxea marraztu!*
- *Ainhoa, ilargia marraztu etxearen azpian!*
- *Agurtzane, baloia egin ilargiaren ezkerretan!*
- ...

Azkenean honelako zerbait aterako zaigu:



Bigarren urratsa marrazkiak ezabatzea da. Ikasle batek beste bati marrazki bat ezabatzeko eskatuko dio. Baina ez edozein modutan; marrazkia bera ezin da bere izenez aipatu. Zeharkako bideak erabili beharko ditu:

- *Julen, ezabatu kotxearen azpian dagoena.*
- *Nekane, ezabatu Idoiak egindako marrazkia.*
- *Ander, ezaba ezazu azkena egin den marrazkia.*
- ...

ALDAERA

Jolas indibidual bezala ere erabil daiteke.

MATERIALA:

Haur bakoitzari laukitan banandutako orria emango diogu, ikaslea nagusia bada (3. mailatik gorakoa) berak egin ditzake laukiak.

AZALPENA

Nahi beste laukitan bana daiteke orria.

Ikasle bakoitzak bere toki eta orrian irakasleak esandako aginduak betetz joan beharko du.

- a) Laukiak numeratuak joan daitezke, eta honela bide batez ordinalak landuz joan

Zortzigarrenean marraztu ezazu txori txiki-txiki bat.

Lehenengoan idatzi zure amaren izena.

Laugarrenean marraztu, idazteko balio duen tresna bat.

Hirugarrenean marraztu, gauez zeruan agertzen dena.

Bostgarrenean idatzi zu bizi zaren kalearen izena.

Bigarrenean erantzun: zenbat dira bost gehi bi?

Bederatzigarrenean marraztu zaunka egiten duen animalia irudia.

Zazpigarrenean idatzi zortziren erdia.

1. Maria Dolores	2. Zazpi	3. 
4. Arkatzak	5. Durana	6. Igor Gonzalez
7. lau	8. 	9. 

Seigarrenean idatzi zure lagun baten izen-deiturak.

b) Edo eta numeratu gabe eman eta espazio-norabidea landuz joan.

Lehenengo lerroko eskumako laukian idatzi asteko lehenengo eguna.

Azkenengo lerroko erdiko laukian marraztu lau hankadun animalia bat, jar iezaiozu bere izena.

Bigarren lerroko erdiko laukian idatzi janari garratz baten izena.

Lehenengo lerroko erdiko laukian marraztu animalia haundi baten burua.




Azkenengo lerroko ezkerreko laukian idatzi haundia izan arren izen txikia duen zerbaiten izena.

Bigarren lerroko eskumako laukian idatzi beti zuria den zerbaiten izena.

Lehenengo lerroko ezkerreko laukian marraztu bere izena oso luzea izan arren oso txikia den zerbait.

Azkenengo lerroko eskumako laukian idatzi "h" hasieran duten hiru hitz.

Bigarren lerroko ezkerreko laukian marraztu zuhaitz hostotsu garai bat.

1.  Amonamantxangorri	2. 	3. Astelohera
4. 	5. limoia	6. Elurra
7. ZERUA	8.  OREINA	9. haundia hartu honeka

37.- IDATZIZKO AGINDUAK



MATERIALA:

Aginduak pentsatu eta arbelean idatzi. Aginduak pentsatu eta papertxo zenbakituetan idatzi.

AZALPENA

Ikasle hainbat esaldi imperatibo idazten dira arbelean. Esaldi bakoitzak zenbaki bat du eta haur bakoitzak ere bai. Beraz, ikasle bakoitzak bete beharreko agindu jakin bat izango du. Irakasleak zenbaki hori esaten duenean ikasleak bere agindua bete beharko du azkar-azkar.

Ikasleen zenbakiak aldatzea komeni da noizean behin.

Gauza apur bat konplikatu nahi bada ez dugu ikasle eta zenbakien arteko lotura finkorik ezarriko. Honela esan genezake orduan:

– *Jon, hogeitazazpi!*

Jonek lehenbailehen zenbaki hori arbelean bilatu, irakurri eta bete egin beharko du.

Arintasuna bilatzen badugu hiru agindu bakarrik idatziko ditugu eta zenbakiak azkar esan, ikasleak hatzaz seinalatuz:

- *Bat!*
- *Hiru!*
- *Bi!*

Hona hemen baliogarri izan daitezkeen agindu batzu:

- *Idatz arbelean zure izena.*
- *Esan ozenki zure ezkerrean dagoenaren izena.*
- *Topa zure gelakoen artean praka luzedunen kopurua eta arbelean idatz.*
- *Gelako atea iriki ondoren atera itzazu pasilora zure bi lagun eskutik helduta.*

Aginduak arbelean idatzi ordez papertxoetan idatz daitezke, eta mahai baten gainean utzi zenbakituak, honela ikaslea jaiki, dagokion papera hartu, isilean nahiz ozenki irakurri eta agindua bete beharko du. Agindua isilean irakurrita betez gero, ikasleak ozenki irakurri beharko luke papertxoan jartzen duena gainerako ikasleek, agindua ongi ala gaizki bete duen jakin dezaten.

38.– MARRAZKI DIRIJITUA



MATERIALA:


Marrazki egokiak aukeratu eta deskribapena idatzi.

AZALPENA

Ikasle batek esku artean daukan irudi bat deskribatzen du eta beste

batek arbelean edo paper batean dibujatu egin behar du. Gero irudiak erkatu egiten dira, eta komentarioa egin. Gela osoari ere deskriba dakiok. Edo idatziz deskribatu ere.

Oso marrazki simplea izan beharko du, zailtasuna adina eta ulermen mailaren arabera izango da.



Lehenengo aldiz, eta teknika menderatu arte, arbelean egin daiteke denen artean, gero bakoitzak berea beteko du.

Ikasleari erreferentzi puntu bat emango zaio, eta bertatik hasi beharko du marrazkia egiten, erreferentzi puntu hori gurutze batez marka daiteke.


Hona hemen zailtasun desberdineko, bi adibide:

1) *Orriaren erdialdean gurutze bat dago, ba has zaitez hortik marrazkia egiten. Gurutzea dagoen tokian zuhaitz haundi bat marrazazu. Zuhaitz hori sagarrondo bat da, eta hiru sagar ikusten dira zuhaitzetik zintzilik.*

2) *Zuhaitzaren eskumaldean Eider dago. Eiderrek ile luzea du.*

3) *Eider bere otzara bilatzen ari da. Eiderren otzara zuhaitzaren ezkerraldean dago.*

4) *Egun eguzkitsua da eta zeruan eguzkia dago*



1) *Gelaren ezkerraldean mahai karra-tu bat dago.*

2) *Mahai gainean ardo botila bat dago, erdiraino beteta, eta botilaren ondoan ardoz beteriko edalontzi bat.*

3) *Gaua da, eta gelako argia piztuta dago.*

4) *Aurreko hormaren ezkerraldean koadro bat dago itsatsita hormaren goi aldean, bertan itsasoa ikus daiteke.*

5) *Lurrean alfonbra borobil bat dago.*

6) *Alfonbrearen gainean katu bat dago lotan, dirudienez nahiko jolastu du mahaipean dagoen pilotatxoaz.*

7) *Koadroa eskegita dagoen horma berberean leiho bat dago eskumaldean eta gaua denez, izartxo bat besterik ez da ikusten leihotik.*

39.- AGINDU SOILAK



MATERIALA:


Aginduen zerrenda prestatu.

AZALPENA

Aginduen bidez ere jolas daiteke eta aldi berean hizkuntzaren zati bat landu. Aginduak aldezturik prestatzea komeni da, bestela irudimena motz gera daiteke une laburretan agindu diferente asko eman behar baditugu.

Hasteko agindu bakarra emango dugu.

- *Zu altxa zaitez.*
- *Zuk koadrinoa Maiteri eman.*
- *Zuk atea ireki.*
- *Mahai gainean paper bat jarri.*
- *Denak, burua jaitsi.*



Gero bi:

- *Zuk hanka altxa eta begi bat itxi.*
- *Besoa altxa eta makurtu*
- *Lepoari heldu eta mihia atera.*

Aginduak ordena kronologikoan bete ditzatela eskatuz:

- *Argia piztu ondoren liburu bat hartu.*
- *Aulkira igo aurretik Edurneri eskua eman.*
- *Atea ireki baino lehen idatzi zure izena arbelean.*

Puntu gramatikal zehatzen ulermena lantzeko aginduak ere erabil daitezke noizean behin:

* Erlatiboaren ulermena lantzeko:

- *Ekar ieza dazu Pellok **duen** arkatza.*
- *Bultza zure ondoan **dagoen** pareta.*
- *Jaso lurrean **dauden** paperak.*

* Konpletiboen ulermena lantzeko:

- *Esan Imanoli gaiztoa **dela**.*
- *Esan Josebari berandu **dela**.*
- *Galdetu Arkaitzi ea goserik **duen**.*

C.- ZORTEZKOAK

40.- ZAPATA HAU ZUREA DA?



MATERIALA:

Haurren zapatak

AZALPENA

Zaku batean haur bakoitzaren zapata bana sartzen da. Gero hurrek, banan-banan, zapatatxo bat aterako dute eta beste bati eman:


- *Hau Edurnerentzat*
- *Hau Koldorentzat*

Berea ez den zapata edukiko du orduan haurrak seguraski. Beraz, jabea bilatu beharko du.

- *Zapata hau zurea da?*
- *Ez, ez da nerea.*

ALDAERA

Zapatekin egiten den bezalaxe, beste edozein gauzarekin egin daiteke.





41.- NI NAIZ ZALDIA

MATERIALA:

Kartulinak animalien izenekin.

AZALPENA

Haur bakoitzari abere izen bat emango diogu. Aldi berean izen horiek kartulinetan idatzi eta zorro batean sartzen dira.

Haurrak gelaren alde batean ipiniko dira eta bere "izena" zorrotik atera eta irakurtzen denean gelaren beste aldera pasa beharko dute abere hori irudikatzen.

Irakurlea: **ZALDIA!**
Haurra: *Ni naiz zaldia! liii!*



Ogibideak ere erabil ditzakegu jolas honetarako:

Irakurlea: **SUKALDARIA!**
Haurra: *Ni naiz sukaldaria!*
Nik bazkaria preparatzen dut!

ALDAERA

Jolasa zaildu daiteke esaerak erabiliz, eta honen barruan ikasleak bere animaliaren izena topatu beharko du.

- Apirila, biribila, **txerria** urdandegian hotzak hila.
- Ganorabakoen etxean goizeko **oilo** salda arratsean.
- **Akerrak** adarrak okerrak ditu.
- Arratiako **zekorra** txikia baina gogorra.
- ...




42.- NIK EZ DUT MOKORIK

MATERIALA:

Ikus marrazkia.

AZALPENA

Zorro batean gorputz atal ezberdinen irudiak sarzen dira. Batzuk pertsonenak izango dira, besteak abereenak. Ikasleak irudiak atera eta gorputz atal hori badaukaten edo ez esango dute.



- *Nik ez dut isatsik*
- *Nik ez dut mokorik*
- *Sudurra badut*
- *Begiak baditut*

Pertsonen kasua hartu beharrean animaliaeren batena ere har genezake:

- *Astoak badu muturra*
- *Astoak ez du adarrik*

Batzutan zehaztu beharrean ere aurkituko gara:

- *Katuak hankak, baditu, baina honelakoak ez.*



43.– NI EZ NAIZ ARBELERA JOAN

MATERIALA:

Ikus marrazkia.

AZALPENA

Zorro batean gelako txokoen marrazkiak sartzen dira: leihoa, atea, armarioa, arbela, mahaia, irakaslearen mahaia,...

Ikasle bakoitza horietako leku batera joango da, nahi duenera. Gero txartela aterako dute poltsatik eta tokatu zaion lekura joan diren edo ez esango dute:


- *Ez, ni ez naiz arbelera joan*
- *Bai, ni leihora joan naiz*

Beste esaldi batzuk ere har ditzakegu oinarritzat:

- *Ez, gaur ez dut arrainik jan*
- *Bai, gaur arraultzak jan ditut*

Edo:

- *Ez, ni ez naiz leihotik etorri*
- *Bai, ni irakaslearen mahaitik etorri naiz*
- *Bai, ni hondartzara joango naiz.*





44.- ZURI KLERA EMAN DIZUT

MATERIALA:

Gelako materialaz balia daiteke

AZALPENA

Ikasle batek gauza desberdinak banatzen ditu, beste lagunen artean. Haiek atzean izkutatuko dute eman zaiena eta banatzaileak bakoitzari zer eman dion gogoratu beharko du:

- *Zuri klera eman dizut.*
- *Ez, neri betaurrekoak eman dizkidazu*

ALDAERA

Jolas hau zailagotu daiteke banatutako gauzak gehituz, hots, haur bakoitzari gauza bat eman beharrean gehiago emanaz. Ondorioz aditza pluralean jarri beharko da.



45.- ZOTZ EGITEN

Hona hemen zotz egiteko hainbat bertsotxo: Azkueren (Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoak)



- Dona dona katona
sutondoan aitona
lepotik behera kuttuna
irten kanpora neska edo mutil
ttunttuna
- Atxia motxia perolipan
nire semea errotan
errotara nindoala
topa neban asto bat
kendu neutsan buztan bat
ipini neutsan beste bat
errota txikiak
klin-klan.
- Don don beledron
Beledrongo elizan
hiru atso dantzan
hirurak ez dute
ardit bana poltsan.
- Harriola Marriola
kinkuan kin
portan zela
portan min
arraxinolet, marraxinolet
xegeren megeren
kirun karun xek.
- Atxa mitxa zilarra
joan joan oilarra
ardi beltzen bilara
o pitxon, biribiltxon
txin, txan txon
- Andres, mandres
kolko bete tremes,
harek janda gosez;
soloak gora, soloak behera
negarrez.
- Anton bat eta Anton bi
Anton putzura erori
edan zituen pitxer bi
etzan orduan egarri
Bonbolon bat eta bonbolon bi
eragiok, Santi arraun horri.
- Txintxina mintxina suara
Barbara txikitena
Gaztaina gora gaztaina behera,
txukutu txakutu fuera.

D.– ANTZEZTEKOAK

46.- EZTABAIDA



AZALPENA

Nahikoa da hemen agertzen diren gaiak edo antzekoak haurrak hitzegiten jartzeko.

- Anetxu haserre dago eta ez du amarekin erosketak egitera joan nahi. Amak berokia jantzi nahi dio, baina Anetxuk ezetz eta ezetz dio, indarra egiten du berokia ez jazteko. Amak konbentzitu egin nahi du:
 - *Baina, hotza egiten du. Jantzi ezazu berokia.*
 - *Ezetz. Ni ez naiz kalera joango. Telebista ikusi nahi dut.*
- Unaik jostailu bat dauka eskuetan, Itziarrek eskatzen dio. Unaik ez dio eman nahi. Itziarrek kendu egiten dio eta azkenik tirabiretan puskatu egiten da. Kulpa, noski, elkarri botatzen diote.
- ...


47.- TXAKURRA EROS EZAZU!



AZALPENA

Ikasle batek bestea konbentzitu beharko du zernahi gauza erosteko. Erosleak ez dio baiezkorik emango hasieratik, eta azalpenak eskatuko dizkio.

Adibidez txakur bat saltzeko:



Saltzailea *Begira zer txakur polita. Merke-merke salduko dizut.*

- Eroslea *Alde, alde. Abereak ez dira etxean edukitzeko.*
- Saltzailea *Nola ezetz? Zergatik ba?*
- Eroslea *Etxea zikintzen dute. Kaka eta pixa egiten dute. Eta etxeko gauzak apurtu.*
- Saltzailea *Ez gizona! Txakur hau oso ondo ikasia dago. Lasaia da. Kaka toki berean egiten du beti horretarako ipintzen zaion tokian.*
 Txakurra gizonaren lagun handiena da.
- Eroslea *Izan ere, oso polita da. Baina garestia izango da neretzat.*

.....



48.- ZAPATAK EROSTEN

MATERIALA:

Zapatak, kaxak, kaltzadorea.

AZALPENA

Erosketek beti mintzatzeko aukera egokia eskaintzen digute eta aldi berean nork bere gustuak eta beharrak adierazteko. Gidoi berdintsua jarraituz egin ditzakegu zapaten, galtzen, alkondaren etabarren erosketak.

- Dendaria *Arratsalde on, zer nahi duzue?*
- Ama *Asierrentzat oinetakoak eroatera gatoz.*
- Dendaria *Zer oinetako klase nahi duzu Asier?*
 Zapatak, botak, sandaliak, zapatillak? -
- Asier *Nik zapatillak nahi ditut.*



- Ama *Zer koloretakoak gustatzen zaizkizu?*
- Asier *Urdinak.*
- Dendaria *Tira, probatu hauek, ea ongi dituzun.*
- Asier *Txikiak ditut eta gainera oso itsusiak dira.*

Gidoia luzatzeko gertakizun desberdinak asma daitezke burua gehiegi nekatu gabe:

- Zapatak alderantziz jantzi ditu haurrak.
- Min ematen diote.
- Nahi ez zituen zapatak sartu dizkiote kaxan.
- Oin bereko zapatak sartu dituzte kaxan.
- ...

49.– NON DA AINHOA?



AZALPENA

Ainhoak etxera konbidatu zaitu. Baina haren etxera iritsi zarenean harrituta geratu zara: Ainhoa ez dago etxean. Amak hondartzara (edo beste norabait) joan dela esan dizu. Zuk datu gehiago eskatuko dizkiozu amari:

- Noiz joan den.
- Nongo hondartzara joan den.
- Zer tokitan ipintzen den.
- Nolako bainujantzia daukan.
- ...



ALDAERA

Ainhoa hondartzara joan beharrean beste edozein tokitara joan da:

- Mendira
- Zinera
- Zirkora
- Kalera
- ...



50.– NOLAKO EGURALDIA DAGO?

AZALPENA

Haur bat kanpora irteten da eta leihoaren bestekaldetik nolako eguraldia egiten duen adierazi behar du keinuen bidez: eguzkia, euria, elurra, haizea, beroa, hotza,...

Besteek adierazitakoa asmatu behar dute.

Jolas honen bitartez ikasleak ikas dezakeen hiztegia:

IZENAK		EKINTZAK
iparraize	tximist	lurrindu
hegoaize	trumoi	urtu
epel	giro	busti
bero	izotz	erre
hotz	laino	izoztu
hodei		berotu
lanbro		hoztu
sargori		argitu
haize		lehortu
euri		egosi
lurrikara		kiskaldu
ekaitz		ihartu
ostadar		lainotu

ESAMOLDEAK

- Euria parra-parra ari du.
- Eguzkiak bete betean jo.
- Elurra mara-mara ari du.
- Mela-mela gelditu.
- Hotzak dardarka egon.
- Haizea firi-firi ari du.
- Blai-blai eginda gelditu.



51.– BAZKALTZERA!

AZALPENA

Batek bazkaltzera deituko die besteei

- *Bazkaltzera! Zatozte denok!*
- *Bazkaria prest dago!*

Mahaikideak azalduko dira. Bakoitzak komentarioren bat egin dezake:

- *Hau gosea!*
- *Bazen garaia*
- *Itxoin piska bat! Oraintxe noa.*

Denak elkartu direnean honela galdegingo dute:

- *Zer da gaur bazkaltzeko?*

Sukaldariak mila erantzun ditu aukeran

- *Gaur zopa daukagu hasteko eta gero oilaskoa.*

Besteek erreakzio desberdinak eduki ditzakete:

- *Bai ondo!*
- *Oilaskoa gaur ere!*
- *Badakizu neri ez zaidala zopa gustatzen.*
- *Oilaskoa goxoa dago!*
- *Zopa geza dago!*
- ...





52.- TAXI, TAXI!

MATERIALA:

Lau aulki edo kartoizko kaxa handiak.

AZALPENA

Lau aulki ipintzen dira kotxe batekoen modura. Batean txofera jartzen da. Bezeroa igotzen denean elkarriketa sortzen da:

- Bezeroa – *Taxi, Taxi!*
- Taxista – *Egunon. Nora zoaz?*
- Bezeroa – *Hondarribira, azkar.*
- Taxista – *Hondartzara zoaz, ala?*
- Bezeroa – *Ez, ez, ez. Hegazkina hartu behar dut.*
- Taxista – *Kamioi zahar hauek!*
- Bezeroa – *Lasai, lasai, istripu bat izango dugu, bestela!*
- Taxista – *Presa ez al zenuen ba?*
- ...

Benetan mugitzen diren taxiak edukitzeko kartoizko kaxa haundiak balia ditzakegu azpia kenduz.



53.- INTXAUSTIKO KATU ZAHARRAK TXIZA EGIN DU!



AZALPENA

Korrua egin eta mezu bat pasatu behar da ahoz aho. Lehenengo haurrak doinuera aukeratuko du (barrez, negarrez, harriduraz, normal, triste, haserre,...) bigarrenak galdetuko dio, eta lehenak baieztatuko dio galdetutakoa. Horrela korruko haur guztiak parte hartu arte. Buelta bakoitzean doinuera aldatuko da.

Barrezka

1. Haurra – **Intxaustiko katu zaharrak txiza egin du!!*

2. Haurra – *Txiza egin du?*

1. Haurra – *Txiza egin du!!*

2. Haurra – *Intxaustiko katu zaharrak txiza egin du!!*

3. Haurra – *Txiza egin du?*

2. Haurra – *Txiza egin du!!*

Elkarrizketa zaildu daiteke piska bat:

Negarrez

1. Haurra – *Intxaustiko katu zaharrak txiza egin du!!*

2. Haurra – *Bai, eta non egin du?*

1. Haurra – *Sukaldeko lapikoan!*

...

Edo beste hauek:

1. Haurra – *Badakizu? Alkatea hil da!*

2. Haurra – *A bai? Noiz izan da?*

1. Haurra – *Gaur gauean.*

2. Haurra – *Ez zen ba oso zaharra*

1.- *Andregairik baduk?*

2.- *Bai, ederra, bikaina, gizona, Patrizia du izena.*

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jaso)

*OHARRA: "Intxaustiko" esan beharrean inguruko edozein baserri edo etxeren izena erabil daiteke. Adibidez. "Eguzkitzako" katu zaharrak txiza egin du".

1. *Baratzean aza*
2. *Fera, fruto zozoa.*
1. *Baratzean porru*
2. *jan ondoan dolu*
1. *Baratzean perrezila*
2. *Zaude isil, zaude isil, zaude isil-isila.*

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jaso)



54.– ETXEKO LANAK

AZALPENA

Antzezpen honetan jokalaria batek haurraren papera izango du eta besteak ama edo aitarena. Haurrak oporrak hartu ditu eskolan eta gurasoek egiten dituzten lanez interesatzen hasten da:

– *Aita, zer egiten ari zara?*

Etxeko lan asko eman daitezke erantzunean:

- Arropa zabaltzen
- Gosaria prestatzen
- Ohea egiten
- Bizarra kentzen
- Ontziak garbitzen
- Irratia konpontzen
- Bazkaria prestatzen.
- ...

Ondoren umeak galdera gehiago egin ditzake:

- *Zertarako?*
- *Zergatik?*
- *Norentzat?*
- ...



55.- ZU ARRAINA AL ZARA?



AZALPENA

Haur bakoitzak bere "papera" izango du. Baina "katuak" ez du jakingo nor den "arraina". Katua, beraz, gelara sartu eta arrain bila hasiko da. Atzaparrak edozeinen gainean ipini eta honela galdetuko dio:

- *Zu arraina al zara?*
- *Ez, ez, ni platera naiz!*
- *Platera esan al duzu? Buag!*

Beste bati:


- *Zu arraina al zara, txiki?*
- *Ez, ez ni itsasoa naiz.*
- *Itsasoa! Aja! orduan zure ondoan egongo da nire arraintxo hori!*

Beste bati:

- *Zu, zu arraina al zara?*
- *Ez, ez ni hodeia naiz (harridura aurpegiaz)*
- *Hodeia? Eta zer egiten duzu hemen? (haserre)*

Katuak hutsegiten duen bakoitzean bai mimikaz, bai hitzez irteera barregarriak botatzen saiatuko da.

Hamar huts egin ondoren bere papera galduko du, eta berriz hasiko da jolasa katutzat beste bat aukeratuz.





56.- NAUFRAGOAK

AZALPENA

Planteatzen den egoera hau litzateke:

Itsasontzi bat hondoratu da itsasoaren erdian. Marinel batzuk nola hala uharte batera iritsi dira. Han, behin lasaitu eta lehortu ondoren, egin behar luketena eztabaidatzen dute:

- *Lehenengo gauza janaria bilatzea izango da.*
- *Ez, ez, ura behar dugu. Urik gabe hil egingo gara.*
- *Bai eta gero etxetxo bat egingo dugu.*
- *Ez, ez, txalupa bat egingo dugu, hemendik aldegitoko.*
- *Zoratu zara. Itsasoaren erdian gaude. Txalupa batekin ez ginateke lehorterira iritsiko.*
- ...



57.-BERANDU ETXERA

AZALPENA

Bazkalordua da. Imanol, etxeko seme gazteena, ez da ageri. Gurasoak kezkatu daude eta haserre. Azkenean, haurra iristen da, pozik. Gurasoek non izan den galdetzen diote erdi errietan.

Imanolek badu bere aitzakia:

- Autobusa galdu du.
- Zirkoa herrira iritsi da eta nola montatzen duten ikusten egon da.
- Lagun bat ondoezik zegoen eta etxera lagundu dio.
- ...



Aitzaki fantastikoak ere izan daitezke:

- Ehun metrotako sugetzar bat atera zaiola bidera, eta borrokan aritu dela berarekin.
- Bidea bi zatitan puskatu eta helikoptero batek eraman duela etxeraino.
- Bapatean kalea ilunpetan gelditu dela eta itsu-mustuka etorri behar izan duela etxera.
- ...

58.- TELEFONoz HOTS EGITEN



AZALPENA

Telefonozko solasaldiak ere jolas politak izan daitezke eta ahozko adierazpena lantzeko egokiak. Gaiak ordea aurrez prestatzea komeni da. Hona hemen batzuk:

- Igorrekin geratu zara arratsaldean frontoira joateko. Baina etxera iritsi eta gurasoek aiton-amonengana joan behar duzula esan dizute. Igorri abisatu behar diozu telefonoz edo bere etxera joanda.

- Maitek ezin du bihar mendira joan eta bere lagunari deitzen dio, itsasora doala esanaz.

- Herriko jaiak dira eta, Josuk bere lagun bati deitzen dio, zirkorako bi sarrera dituela eta ea joan nahi duen galdetuz.

- Oporrak bukatu dira eta, Estitxuk bere lagunari deitzen dio oporrak ea zer moduz igaro dituen jakiteko.



ALDAERA

Haur txikiekin pertsonaia fantastikoak ere erabil daitezke:

- Zooan kaiolan sartuta dagoen tximinoari deitzen dio telefonoz, ea berarekin bizi nahi duen galdetuz.
- Etxeko lanen koadernoan etxean ahaztu duen mutilak bere armarioari deitzen dio telefonoz han gelditu den ziurtatzeko.



59.- IKERKETA

MATERIALA:

Gertaerak prestatu.

AZALPENA

Inkognita bat daukan egoera aurkezten zaie ikasleei. Talde txikitan egin behar da. Bakoitzari bere papera ematen zaio txartel batean idatzita. Ikasleak jadanik gertaeran inplikaturik daude. Bakoitzak informazio apur bat dauka eta beste guztiei adierazi behar die.

Denena entzun ondoren soluzioa aurkitzen saiatuko gara.

Inportanteena sortzen den elkarrizketa da, eta ez benetako soluzioa aurkitzea.

“LAPURRAK”

“Amak tarta bat prestatu du aiton-amonentzat eta leihoan utzi du hozten. Ama erosketak egitera irten da. Etxeko sukaldean aita eta bi seme bizki geratu dira, Joxe Luis eta Juan Joxe. Aita egunkaria irakurtzen eta semeak eskolako lanak egiten.

Ama kaletik etorri denean tartaren zati handi bat falta da.

Inork ez daki nork jan duen. Handik piska batera Elena etorri da, etxeko alaba, lagun batekin. Azterketa batetik dator, gaizki egin du eta ez du bazkaltzeko gogorik.

Azkenik aitona eta amona agertu dira bazkaltzera. Denak daude erdi haserre eta inork ez du gauza askorik jan. Aitona bakarrik egon da gustora bazkaria dastatzen. Baina postrera iritsita berriz, sortzen da eztabaida.

Ama:

Goiz guztia tarta prestatzen igaro dut. Orea egin, apaindu, labean sartu,... Opari eder bat egin nahi nien nere gurasoei. Baina ezin da fidatu etxe honetan. Inork ez ditu zaintzen gauzak. Giltzapean ipini behar al dira gauza guztiak?

- Aita: *Nik ez dut ezertxo ere jan. Egunkaria irakurtzen egon naiz sukaldean. Momentu bat bakarrik joan naiz egongelara telefonoz deitzera. Orduan eramango zuten tarta puska. Baina segituan etorri naiz eta bi anaiak eskolako lanak egiten ari ziren zintzo-zintzo sukaldean.*
- Joxe Luis: *(zu errudun zara zure anaiarekin batera, baina disimulatu behar duzu). Nik uste dut kalean pasa den norbaitek eramango zuela. Eskolako lanak amaitu ditugunean, koadernoak eta liburuak zorroan sartu eta gelan utzi ditugu. Gero jolastera joan gara. Orduan lapurtuko zuten. Aita sukaldean zegoen, baina hain despistatua da!*
- Juan Joxe: *(zu errudun zara zure anaiarekin batean, baina disimulatu egin behar duzu). Nik ez diot inolako esplikaziorik aurkitzen. Ez nintzen konturatu tarta leihoan zegoenik ere. Ez dut mahaitik bururik altxa. Edonork eraman ahal izan du.*
- Elena: *Badakizue niri ez zaizkidala gozoak gehiegi gustatzen. Gainera ni azterketan egon naiz ia orain arte. Ni etorri naizenerako gertatua zen dena. Nik ez dut ezer jakin nahi.*
- Elenaren laguna: *Egia da Elenak dioena. Azterketan izan da orain arte. Ni berarekin egon naiz goiz guztian. Azterketa ere ez zaigu ondo atera. Hau eguna!*
- Aitona: *Zer axola du horrek? Beti gertatu izan dira horrelako gauzak. Normala da. Horrek tarta ona egin duzula esan nahi du, alaba. Jan dezagun denok pakean. Tarta hori probatzeko gogoia dut, dena desagertu baino lehen.*
- Amona: *Hemen gezurtiren bat dago, edo batzuk agian. Tarta labanaz zatitua zegoen eta hori ez du katuak egiten, eta kalean dabiltzanek ere ez dute normalean labanik eramaten. Edukazio gutxi ikusten dut etxe honetan.*

SOLUZIOA

Lapurrak Joxe Luis eta Juan Joxe anaiak ziren. Aita telefonoz deitzera joan zen bitartean haiek tarta ebaki zuten eta zorroetan sartu puska bana. Gero lanak egiten amaitutakoan, sukaldetik irten ziren zorroekin eta tarta jan.

Dena dela beste nornahi ere ipin daiteke lapur bezala aldez aurretik.



60.- INFORMAZIO BULEGOA


MATERIALA:

Gidoi motzak prestatu. Taldeka ere presta daitezke.

AZALPENA

Mahai bat ipintzen da bulego modura, bertan enplegatu bat dagoela. Besteak informazio desberdinak eskatzera joango zaizkio, mila galdera eginez.

- Kurtso batean matrikulatzeko
- Bidaiaren bat egiteko
- Prestamo bat eskatzeko
- Traktore bat erosteko
- Trenen orduak jakiteko
- Herriko jaien berri jakiteko
- Herrian jolastoki gehiago egin behar duten jakiteko
- etab.



ALDAERA

Bulegoa guztiz irudimenezkoa ere izan daiteke:

- Hodeien bulegoa, eguraldiaren berri jakiteko
- Lau hankako animalien bulegoa, gutaz zer pentsatzen duten jakiteko.
- Herriko farolen bulegoa, neska-mutilek nola tratatzen dituzten jakiteko.
- etab.

61.- NORK BERE PAPERA



MATERIALA:


Txikientzat “roll”a adieraziko duen txartela.

AZALPENA

Paper edo “roll” bana izango dute ikasleek eta bakoitzak paper horien arabera jokatu eta hitz egin beharko du. Hona hemen “paper” posible batzuk:

- Aita eta seme-alabak
- Irakaslea eta ikaslea
- Dendaria eta gizona
- Arkatza eta papera
- Mutikoa eta liburua
- Lorea eta lorontzia
- Sagarra eta sagarrondoa
- Lapikoa eta babak
- Teilatua eta tximinia
- ...

Ikasleak gaztetxoak direnean, aukeratutako “roll”a adierazten duen txartel bat itsatsiko zaio haur bakoitzari jolasa biziagoa gerta dadin.



E.– MEKANI KOAK

62.- NI TXAKURRA NAIZ



MATERIALA:

Animalia ezagunak eta egokiak aukeratu.

AZALPENA

Haur bakoitzak abere baten papera egingo du eta ateratzen duen hotsa adieraziko.

- *Ni txakurra naiz eta "uau-uau" egiten dut (zaunka).*
- *Ni katua naiz eta "miau-miau" egiten dut (miauka).*
- *Ni txerria naiz eta "kurrin-kurrin" egiten dut (kurrinka).*
- *Ni astoa naiz eta "ia-ia" egiten dut (arrantza).*
- *Ni txoria naiz eta "txio-txio" egiten dut (txioka).*
- *Ni behia naiz eta "muuuuuu" egiten dut (orroa).*

Gero bakoitzak bere ezaugarriak ager ditzake.

- *Ni txakurra naiz eta hezurak gustatzen zaizkit.*
- *Ni katua naiz eta arraina gustatzen zait.*
- *Ni txerria naiz eta ezkurak gustatzen zaizkit.*
- *Ni astoa naiz eta belarra jaten dut.*

Orobat tamaina:

- *Ni eulia naiz eta oso txikia naiz.*
- *Ni elefantea naiz eta oso handia naiz.*
- *Ni txakurra naiz eta elefantea baino txikiagoa naiz.*

Bizilekua:

- *Ni txakurra naiz eta baserrian bizi naiz.*
- *Ni katua naiz eta kolean bizi naiz.*
- *Ni txoria naiz eta zuhaitz gainetan bizi naiz.*

63.- PELOTA PASATUZ



AZALPENA

Haurrak korruan ipintzen dira, eta pelota batak besteari botatzen dio. Pelota hartzen duenak esaldi bat esan behar du.

Ez da zaila egitura bera erabiliz hitz bat ordezkatzeari:

- *Nik arraina jan dut.*
- *Nik haragia jan dut.*
- *Nik arraultzak jan ditut.*
- *Nik patatak eta tortila jan ditut.*
- *Nik...*

Edo ezezko perpausak osatuz; bakoitzak bere aurrekoak esandakoa ezeztatuko du.

- (1.) Xabier.- *Ni Xabier naiz*
- (2.) Leire.- *Ni ez naiz Xabier*
- (3.) Ainhoa.- *Gaur asteartea da*
- (4.) Igor.- *Gaur ez da asteartea*



64.- TRENAK



MATERIALA:

Ibilbidea zehaztu, txartelak eta paketeak prestatu.

AZALPENA

Trenak hurrez osatuko dira denok dakigun legez: Lehenik zenbait makinista aukeratuko ditugu eta bakoitzari ibilbide bana (gelatik zehar, jolaslekuan,...) emango zaio. Beraz makinistak ongi jakin beharko du nondik datorren, nora doan eta zein tokitan gelditzen den. Pakete batzuk emango zaizkio. Paketeetan idatzia egongo da zer tokitarako den eta norentzat. Beste ikasleei instrukzio ezberdinak emango zaizkie idatziz.

Adibidez:

Zu Donostian zaude.
Gasteiza doan trena hartu behar
duzu eta Altsasun jaitsi.

Edo beste hau:

Zu Ester Garrastazu zara.
Deban zaude.
Pakete bat jaso behar duzu
Bilbotik datorren trenetik

Geltokiak ipini beharko dira. Eta geltoki bakoitzetik ibilbide desberdineko trenak pasako dira.

Honelako elkarrizketak sortuko dira:

- *Adizu! Tren hau Gasteiza doa?*
- *Bai, bai, Gasteiza goaz.*
- *Eta Altsasun gelditzen da?*
- *Bai, bai, gelditzen gara hor ere.*
- *Zuekin noa, bada.*

Edo beste hau:

- *E, e! Nondik dator tren hau?*
- *Bilbotik, zer ba?*
- *Pakete bat jaso behar dut.*
- *A bai. Badaukat pakete bat hemen entregatzeko. Nola duzu izena?*
- *Ester Garrastazu.*
- *Bai, zure izenean dago. Tori!*

65.– EGURALDIAREN EGUTEGIA



MATERIALA:




Kartulina handi batean hilabete batek egunak hainbat lauki marraztuko dira, eta gelako horman itsatsi.

AZALPENA

Egunero egiten duen eguraldia adieraziko da marrazki bidez, eta azpian idatziz nahi izanez gero.

MARTXOA

OTSAILA

Astelehena	29  15°C Eguzkia dago	6	13	20	27  Hegauizea
Asteartea	30  Euria	7	14	21	28
Asteazkena	1  Lainoa	8	15  Elurra aritu	22	29
Osteguna	2	9  Sargeri	16	23	30
Ostirala	3	10  Tximistak Trumoiak	17	24	1
Arabata	4	11	18	25  Bero handia	2
Igan dea	5  Hotz handia	12	19	26	3

APIRILA



66.- KATEA

MATERIALA:

Katea sor dezaketen galderak prestatu.

AZALPENA

Andereñoak hitz edo esaldi bat esaten du, hartan oinarriturik galdera bat egiten da, galde-erantzunak kateaturik. Taldeka egin daiteke.

Irakasleak: *Nork ikusi du txakurra?*

- 1.- *Katuak*
- 2.- *Eta nork ikusi du katua?*
- 3.- *Behiak*
- 4.- *Eta nork ikusi du behia?*
- 5.- ...

Baita honela ere:

Irakasleak: *Norekin haserretu da Idoia?*

- 1.- *Mikelekin*
- 2.- *Eta norekin haserretu da Mikel?*
- 3.- *Amaiarekin.*
- 4.- *Eta norekin haserretu da Amaia?*
- 5.- ...

Baita honela ere, izenik esan gabe:

Irakasleak: *Norekin zoaz etxera?*

- 1.- *Nire lagunarekin.*
- 2.- *Eta zure laguna?*
- 3.- *Nire ondoan eseritzen den mutikoarekin.*
- 4.- *Eta zure ondoan eseritzen den mutikoa?*
- 5.- ...

67.- KLASIFIKAZIOA



MATERIALA:

Marrazki honen antzerako taula asmatu eta hurrei bana eman.

AZALPENA



Zenbait objektu marrazten dira eta koadro batzuk uzten dira ondoan. Irakasleak konsignak emango ditu.

- 1.- Gurutze bat ipini etxe barruko gauzei.
- 2.- Hiruki bat ipini egurrezko gauzei.
- 3.- Lauki bat ipini burdinazko gauzei.
- 4.- Borobila egin gizonak egindako gauzei.

Gero hurrei galde dakieke: Zergatik jarri duzu gurutzea?

Erraza da haurra ez gogoratzea. Gurutzea duten beste gauzei begiratu beharko die erantzuna asmatzeko:

- *Etxe barrukoa delako.*

	ETXE BARRUKOAK	EGURREZKOAK	BURDINAZKOAK	GIZONAK EGINAK
	×	△	□	○
			□	○
	×		□	○
	×	△		○
		△		
	×	△	□	○
			□	○

ALDAERA

Klasifikapenerako edozein ezaugarri erabil daiteke. Hona hemen adibide batzuk:

- *H hasieran edukitzea*
- *"S"z idaztea*
- *Zortzi letrakoa izatea*
- *Biziduna ez izatea*
- *Negukoa izatea*
- *Tresna izatea*
- *Jantzia izatea*
- ...

Edota:

- *Haundia izan arren txikia dirudi.*
- *Ezin da erosi salgai ez dagoelako*
- *Txikia izan arren bere izena oso luzea da.*
- *Haundia izan arren bere izena oso motza da.*
- *Denbora guztian irensten egon arren ez da sekula bukatzen.*

* Oharra: Haur haundiekin erabiltzen denean zutabe bertikalean marrazkien ordez izenak erabil daitezke.

68.– NONDIK BIDALI ZUTEN?



MATERIALA:

Haurrek ekar ditzaketen postal idatziak.

AZALPENA

Ikasleek postalak ekarriko dituzte etxetik, nonbaitetik bidalitako postalak, erabiliak.

Postalak banatzen dira eta irakasleak (edo ikasleek beren artean) galderak egiten ditu.

- *Nondik bidali zuten postal hori?*
- *Nora bidali zuten beste hori?*
- *Noiz bidalia da hori?*
- *Nongoa da argazkia?*
- *Nork bidali zuen?*
- *Nori bidali zion?*
- ...

Gero ikasleek datu garrantzizkoenekin fitxa bat egin dezakete.

Adibidez:

- *Zer bazkaldu duzu gaur?*
- *Babak.*
- *Zergatik jan dituzu babak?*
- *Nire amak jarri dizkidalako.*
- *Zergatik jarri dizkizu babak?*
- *Atzo azokan erosi zituelako.*
- *Zergatik erosi zituen babak?*
- *Oso merkeak zeudelako.*
- *Zergatik zeuden oso merke?*
- *Aurten baba ugari dagoelako.*
- *Zergatik egon da aurten baba ugari?*
- *Babak hazteko eguraldi egokia egin duelako.*
- ...

70.– ESKAILERA



MATERIALA:

Joku bakoitza bost txartelekin izango da. Ikus marrazkia.

AZALPENA

Irudi bera duten txartel multzoa izango dugu. Irudiak tamaina ezberdinekoak izango dira eta tartean batzuk tamaina berekoak ere bai. Eman dezagun saila bost tamainakoa dela.

Txartelak haur batek edukiko ditu eta beste batek banan banan eskatuko dizkio, konparazioak eginez, bost tamainako saila osatu arte.

- *Emaidazu lore bat.*
- *Emaidazu hau baino txikiagoa.*
- *Ekarri hau baino haundiagoa baina hau baino txikiagoa.*


Eskailera osatu nahi duenak lehenbailehen osatu nahi izango du, ahalik eta eskaera gutxien eginez.

Txartelak eskatzeko konparazio bat egin beharko da.

Ezingo da honela eskatu:

- Emaidazu haundiena
- Emaidazu txikiena
- Emaidazu tartekoa

Eskatzaileak gainera zehatza izan beharko du.



Adibidez:

- 1.- *Emaidazu hau baino haundiagoa*
- 2.- *Ez dago. Hori da haundiena*
- 1.- *Emaidazu hau baino txikiagoa*
- 2.- *Badaukazu bat.*
- 1.- *A bueno! Hau baino txikiagoa eta hau baino haundiagoa*
- 2.- *Tori!*

71.- ESALDI ZOROAK



MATERIALA:

Adibide bezala zerrenda batzuk prestatu.

AZALPENA

Gela hiru taldetan banatuko da, talde bakoitzari agindu bat emango zaio.

- A taldeak izenak asmatu beharko ditu.
- B taldeak *nolakoa* galderari erantzuten dioten hitzak.
- C taldeak, berriz, ekintzak asmatu beharko ditu.

Hiru zerrendak prestatu ondoren talde bakoitzeko batek hiru zerrendetako hitzak lotuz joango da, esaldi farregarriak sortuz.

A zerrenda (ZER?)	B zerrenda (NOLAKOA?)	C zerrenda (ZER EGITEN DU?)
Oilo	langilea	busti da
Katu.....	narraza (k)	lo egin du
Lapiko.....	farregarria.....	dator
Ur.....	txikia	isilik dago
Su	haundia.....	igarian dabil
Ke.....	iluna.....	idazten ari da
Eguzki.....	berritsua.....	esnatu da
Kale.....	negartia	dantzan ari da

ALDAERA

Gela bi taldetan banatuko da.

A taldeko hurrek tokiak adierazten dituzten hitzak, nahiz hitz-multzoak asmatuko dituzte.

B taldekoek berriz, ekintzak.

Bi zerrendak lotzen direnean esaldi farregarriak sortzen dira.

Adibidez:

**A zerrenda
NON?**

Teilatuaren gainean.....
Armairu barruan
Liburu baten azalean

**B zerrenda
ZER EGITEN DU?**

kafea hartzen nuen
mutil bat ikusi nuen
lo hartu nuen

Edo horrela:

**A zerrenda
NORK?**

Txakurrak
Aitonak
Urak

**B zerrenda
NORI?**

amonari.....
etxeko katuari ..
auzoko
kalegarbi-
tzaileari
Mikelen besoari

**C zerrenda
ZER?**

zaldia
telefonoa
ipurdia
ilea

**D zerrenda
ZER EGITEN DIO?**

harrapatu dio
ikusi dio
pintatu dio
erosi dio

Zerrendak ordena desberdinetan irakurriz gero aldaera zoro gehiago izango ditugu.



72.- NAHI DUT

AZALPENA

Haurrak korroan jarririk daude, bakoitzak berari buruzko, nahiz besteei buruzko desioak adierazten ditu. Irakasleak galdetzen dio bati:

- *Zuk Pello, zer nahi duzu?*
- *Nik hondartzara JOAN nahi dut!*
(Eta Pellok, mimikaz hondartzara doala adierazten du)
Orain Pellok galdetzen dio beste bati:
- *Miren, zuk zer nahi duzu?*
- *Nik bizikletaz IBILI nahi dut!*
(Mimikaz adieraziz)
- ...

Eta gero:

- *Maite, Jonek zer nahi du?*
- *Jonek, itsasora bainatzera JOAN nahi du.*
(Jonek mimikaz adierazten du)
- ...

Edo honela:

- *Eneritz, zer nahi duzu?*
- *Igor nire ondotik JOATEA nahi dut!*
(Igorrek mimikaz adierazten du)
- ...

Oharra: Kontutan izan "JOAN" eta "JOATEA" formak kasu desberdinetan erabiltzen direla.

Abididez: - Zuk JOAN nahi duzu.
- Zuk ni JOATEA nahi duzu.

73.- KLABEAK



MATERIALA:

Kodigo desberdinak asmatu eta mezuak prestatu kodigoak erabiliz.

AZALPENA

- a) Letra bakoitzari ikur berri bat ematen zaio eta sistema honez mezuak idatzi. Esate baterako bokalak zenbakiez ordezkatzuz:

a = 1 e = 2 i = 3 o = 4 u = 5

15rp2g3 tx1rr1 d15k1k g15r
aurpegi txarra daukak gaur

- b) Beste kodigoa izan daiteke: hitz zerrenda batzuk egin, zutabetan banatuz. Klabe baten bidez deszifratzen da mezua.

Lehenengo zifra = bertikala
Bigarren zifra = horizontala

Ad.: 1-3; 2-2; 3-1; 4-3; 5-2

	1	2	3	4	5
1	Baliteke	Jokoa	ez	badakit	noiz
2	Txakurra	partidua	lukeen	zorrotza	gustatu
3	Atzoko	joango	bai	zitzaidan	hurrengoan
4	Seguraski	telefonoa	hemen	arroka	latza
5	Ezpata	eta	lainoa	estali	zuen

- c) Edota testu luzeago batean hainbatgarren hitzak bakarrik kontuan hartu.

Adib.: Hirugarrena

Etxe zoro **gero** biharko eguna **plazan** pasatu abere **elkartu-**
ko asko ditu **gara**.

- d) Edota testu bat eman, eta lotuz joan testuko hitz jakin batzuren atzetik doazen hitzak, mezua jaso arte.

Hau esanaz: Topa itzazu testu honetan hitz hauen ondorengo hitzak; eta arbelean idatz jaso duzun mezua

- (1) ARROSAK
- (2) ERORTZEN
- (3) ZEBILTZAN
- (4) DENAK
- (5) ZAPOREA
- (6) BILDU
- (7) BAI

PIONBINOKO EURITE FAMATUA

Behin batez Pionbino herrian goxoki euria egin zuen. Kaskabarra bailitz, mila koloretakoak *erortzen ziren*: berdeak, *arrosak*, *moreak*, urdinak...Haur batek berde koloreko bat jaso eta ahoratu zuen zer gertatzen ote zen ikusteko eta menta *zaporea hartu* zion. Beste batek arrosa koloreko bat dastatu eta marrubi gustokoa zen.

– Goxokiak dira! *Bai, goxokiak!*

Eta kalean zebilen jendea poltsikoak goxokiz betetzen hasi zen azkar eta prestu. Baina ezin *denak lurretik* bildu, gogotik ari bait zuen euri xeble hura!

Euria berehala atertu zuen, baina hala ere, kalea, oinpean kris-kras egiten zuten gozoki usaintsuez egindako oinpeko zoragarri batez estalia utzi zuen. Eta eskolatik itzultzen zirenek ere aurkitu zuten han beraien zorroak betetzeko aina. Handik *zebiltzan amonatxoek* poliki *bildu zituzten* beren buruko zapietan.

A, zer eguna hura!

Oraindik ere jendea beste gozoki zaparrada bat noiz egingo zain dago, baina hodei miresgarri hura ez da geroztik Pionbinotik ez Turindik igaro eta auskalo inoiz gehiago igaroko ote den Cremonatik!

(“Telefonozko ipuinak”tik hartua Elkar, 1983)

MEZUA

“MOREAK (1)	ZIREN (2)	AMONATXOEK (3)	LURRETIK (4)	HARTU (5)
ZITUZTEN (6)	GOXOKIAK” (7)			

74.- HITZ KATEA



MATERIALA:

Penalizazioak prestatu jolasa hasi aurretik.

AZALPENA

Haurrak taldeka bilduko ditugu (Hasieran, behar bada, eta jolasaren arauak ongi ezagutu arte, arbelean eta denen artean egitea komeni da).

Haur batek hitz bat proposatuko du, edozein hitz.

Adibidez: "*Arraina*". Hitz horren hasierako letra arbelean apuntatuko dugu. Hitza, gogoan izango dute jokalaria guztiek, ezin bait da errepikatu.

Bigarren jokalaria "*Az*" hasten den hitz bat, nahiz, "*A*" bigarren letra bezala duen hitzen bat esango du, "*arraina*" hitza errepikatu gabe, noski.

Adibidez:

– *Zabala* (Aren aurretik dagoen letra apuntatuko dugu). Hirugarren jokalaria "*ZA*"gunea errespetatzen duen hitz bat aurkitu beharko du, gehienez ere haren aurretik letra bat jarriaz, baina kontuz!, ezin izango ditu errepikatu aurretik esandakoak.

Beraz honela joango litzateke jolasa:

Esandako hitzak

Arraina.....
Zabala.....
Zapata.....
Zapaldu.....
Zapaburu.....

Arbelean idatzitakoa

A
ZA
ZAP
ZAPA
ZAPAB


Edo honela:

Arraina.....
Zabala.....
Izarra.....
Izara.....
Lirraza.....
Lizardi.....

A
ZA
IZA
IZAR
LIZAR
LIZARD

Nahi izanez gero, hutsegite bakoitzat penalizazioa izango du. Haur bakoitzari orri bat emango zaio lau zatitan ebaki dezan. Ikasleak,

hutsegiten duen bakoitzean paper laurdena galduko du, ea nor gelditzen den orri osoarekin.



F.– KANTUAK

75.- ZER KOLORE DAUKAZU?



MATERIALA:

Haur bakoitzeko poto bat, poto azpia koloreztatua, nahiz animalia baten irudia itsatsita.

AZALPENA

Haurrak korroan ipini eta potoak eskuz esku pasatuko dira. Potoak batak besteari pasatzeko edozein abesti erabil daiteke. Hona hemen adibide batzuk:

- | | | |
|--|--|--|
| ● Egur bat egur bi
haroztegian nabil
zerrak zirrin zirrin zar
mailuak tikitauka

(Ikus musika "Txalopin
Txalo"n) | ● Atzo tuntun
Gaur ere tuntun
Beti tuntun
gaitun gu.
Zazpi librako
oilo txuria
azeritxoak
jan digu. | ● Bolon bat eta bolon bi
bolon putzura erori
erori batzen erori
ez da geroztik ageri. |
|--|--|--|

Abestia amaitzen denean, batek honela galdetuko du:

– *Zuk zer kolore daukazu, Amaia?*

Amaiak poto azpian zer kolore daukan asmatu beharko du eta beste bati galdera egin.

Koloreak izan beharrean, abereak, edo loreak edo beste zernahi gauza izan daiteke.

76.- KOXK ALA PIPITA?



AZALPENA

Haurrak binaka jartzen ditugu. Lehenengo batek egingo dio besteari eta gero alderantziz.

Behatzak banan-banan ikutuz hau esaten da:

"Pinpin Serapin, kutxilo ta maratzin, ttuturruttuttena, xabin, xabin, koxk, aitona, kaxka motx, pipa motx".

Ikutzen den behatza ezkutatu behar da. Azken gelditzen zaionari galde egiten zaio:

– Koxk ala pipita?

Koxk esaten badu, hortzez koxkada txiki bat ematen zaio.

Pipita esaten badu txitximur bat egiten zaio.

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)



77.- INGURUMARIKA: BIRA BIRA MONTE

AZALPENA

(Alakinkirrinaren antzekoa)

Haurrak korroan jarriko dira eskutik helduta eta jira-biraka kantatuz:


“Bira bira monte
Zozo balkate
Ibarrangeluan alkate,
Bilbon errejidore,
gure auzoko Petratxu bere
atzera bira leiteke”.

BIRA BIRA 27



Petratxu izenaren orde, korroan dauden haurren izenak esanez joango dira, guztienak esan arte. Bakoitzak bere izena entzuterakoan bira emango du, atzera begira korroan jira-biraka jarraituz.

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)



78.- PUTZUKO LAMIA



AZALPENA

“Lamia” makurturik dago intzira baten ondoan. Haurrak biraka dabiltza inguruan, bata bestearen atzetik, kantari, ondoko estrofa erritmoz esanez:

Putzuko lamia
neska polit gaztia
non duzu orrazia?
Ez gehiago orraztu.
Ta hona begiratu.
Ezetz harrapatu!

Azken esaldi hori esandakoan haurrak korrika hasten dira. Lamiak bat harrapatu behar du eta honek haren lekua beteko du.

79.- HITZ SORGINDUA



MATERIALA:

Hitz zerrendak prestatu.

AZALPENA

Hurrek borobila osatzen dute, bata bestearen atzetik mantso dabiltzalarik. Sorginak (andereñoak) kanta magiko bat kantatzen du. Nahi dituen hitz guztiak sartzen ditu, batere loturarik gabe: mahaia, zezena, oiloa, tximinia, zeru beltza, etab. Baina “*orratza*” esaten duenean haur guztiak lekuetara esertzera joan behar dute korrika.

Hitzak zenbat eta azkarrago esan hainbat eta zailago egingo zaie kontrola hurrei. Gainera hitz sorginduaren antzekoek (hondartza, arrantzak, arroza,...) haurrak nahasteko balioko digute.

Jokoa zailagotzeko bi hitz sorgindu erabiliko ditugu. Orain lehenengoaz aparte “*orria*” entzutean makurtu egin beharko dute, adibidez.

ALDAERA

MATERIALA:

Abesti egokiak aukeratu.

AZALPENA

Abesti jakin bat hartzen da eta haurrak dantzan hasiko dira gelan zehar, hitz sorgindua entzun arte, hau entzun ondoren bakoitza bere tokira joango da.

Hona hemen adibide bat:

Mendi mendian
sorgin zaharrak
triskiti trauski
triski traus
salto eta brinko
ibiltzen dira
artzainak bitartean lo
inarrezko (1) **errailakin** (2)
ris-ras
garbitzen dute **larraina** (3)
ris-ras
ris-ras-ras
ris-ras
ris-ras
ris-ras-ras
uuuuuuuuu!

(1) txilarra

(2) pilo luzea

(3) plaza, garia jotzeko tokia

Edozein hitz, hitz-sorgindu batez truka daiteke.



80.– DONOSTIATIK BILBORA

MATERIALA:

Potoak. Haur txikientzat direnean yogurth poto barruan baba, garbantzoko batzuk sar daitezke zarata atera dezaten.

AZALPENA

Kanta baten erritmoa aprobetxatuz gauzaren bat eskutik eskura pasatzea besterik ez da jolas hau.

Mahaiak segidan ipini behar dira zirkuito itxi bat osatzen. Potoak ondo mania daitezkeen objetoak dira. Ezkerreko lagunak utzi duen potoa hartu eta eskubikoaren ondoan uztea da egiteko bakarra. Baina kontuz: momentu batzuetan potoarekin atzera egin beharra gertatzen da, hau da, eskubitik ezkerretara.

Gaztelaniazko “Desde Córdoba a Sevilla” kanta ezagunaren hitzak itzuli eta egokitu ditugu piska bat:

Donostiatik Bilbora
 arindu zaigu dena dena dena
 trenbidea ipini **dute** ←
 trenbidetik trenbidetik hor doa **trena** ←
 Trenean andre bat **dago** ←
 senarra ere baita baita baita
 pardela ireki **dute** ←
 eguerdia eguerdia iritsi **da ta** ←

Erritmoa eramateko potoaz kolpe bat jotzen da mahaian. Kolpea eman behar den silaba markatu egin dugu, eta geziak ipini ditugu atzera egin behar denetan.

81.– TUXTUXKA



Tuxtux, tuxtux, tuxtux esaten du batek, pelota zangopean duela. Lagun guztiak bere inguruan biltzen dira.

– *Norendako? Norendako?*

esaten du pelota duenak.

– *Faustinorendako* (nahiz beste edozeinendako)

Zangoz pelota botatzen du ahal bezain urrun.

Hartzen duenean berriz jolasa hasten da, esanaz: tuxtux,...

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jaso)

82.– SOKA-SALTOKA JOLASTEKOAK



- Aizu ttikurru ttaku
 ni ez naiz eroa
 sardina burua baino
 hobe dut oiloa
- Bat bi hiru eta lau
Txominek andrea falta dau
Txominek dauko dendea
 sagar ustelez betea
 sagar ustelak saldu daizenean
 topauko dau andrea.

Abesti honetako bigarren lerroa alda daiteke saltoka ari den haurra-
 ren izena aipatuz. Honela:

- Bat bi hiru eta lau
Maitek sudurra galdu dau

...

- Bat bi hiru eta lau
Xabierrek hankea apurtu dau

...

- **Saltoka-saltoka**

Saltoka saltoka
nabil ni gustora
salto eta salto
bat sartu arte
sartu dadila Amaia (haurraren izena)
eta biok alkarrekin
ibili gaitezen
bat irten arte
eman zazu bira irtetzeko.



Haur bat sartzen da eta saltoka ari da, "sartu dadila..." esaten denean hurrengo haurra sartzen da, eta biok egiten dute salto lehen sartu dena irten arte (abestiak esaten duen bezala). Gero bigarrena gelditzen da berriz kanta osoa bukatu arte, eta horrela...




83.- TXALOKA JOLASTEKOAK

- **Nire amak esan zidan**
(“Mi mamá me prometió” ren musikaz)

Nire amak esan zidan
joateko baserrira
erosteko beretzat
kilo bat patata

- **Kukutubiku**
Xe-xe-xe
Ku-ku-tu-bi-ku
anianiku
zozoak umeak
sasian ditu
birigarroak
adarrean
kaka egin zuen
bizarrean



(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)

84.- ETA BESTE BATZUK



Hona hemen erritmo soilez erreztatzen diren poematxo herrikoiak.

- Txalo txalo pin
Errotako Matxin
Etxean geratzen bahaiz
goseak hilko haiz
Basora joaten bahaiz
Otsoak jango hau.
- Lehen negarrez
orain parrez
Xaguxarrarekin
ezkontzeko pozez.
- Tilin talan
Nor hil da?
Martin Zapataria
Zer egin du?
Pekatu
Erregen txakurra urkatu.
Hori ez da pekatu
- Kukurruku, zer diozu?
Buruan min
Zeinek egin?
Axerkok
Axerko non da?
Errotapean
Zertan?
Ogialeak biltzen
Ogialeak zertako?
Oiloari emateko
oiloa zertako
arrautzak egiteko
arrautzak zertako?
apaizari emateko
apaiza zertako
gu eta mundu guztia salbatzeko
- Andrex, malakabex
botila hautsita negarrez
berria erosita farrez

85.- HOTSAK LANDU



MATERIALA:

Landu nahi diren fonemak dituzten abestiak nahiz poematxoak.

AZALPENA

Haur txikiei fonemen arteko oposaketak nabarmen arazteko bide egokia izan daitezke abestiak.

S – Z : Sarean zun-zun
sarean zun-zun
sarean zun-zun zena.

L – R : Lau kirinkun
lau kirinkun
lau kirinkun lena.

Erritmo hutsez lagundurik osa genitzake honelako abesti “apaingarrak”:

K – P : Kopo
kokopi
kokopi
kokopa
Pipa
kanpora!

K – T : Kitito
kitita
kiti
katua
kito!

Fonema bakoitza keinu batez lagun daiteke. Esate baterako K – ahoskatzerakoan besoak atzera eraman eta P ebakitzerakoan aurrera, lehenengoa ahosapaiaren atzekaldean sortzen bait da eta bigarrena berriz ezpainetan.

Edo bestela edozein keinu erabiliaz landu nahi den fonema ahoskatzen denean (salto egin, besoak jaso,...)

TZ : hatz makatz
tori berakatz
nahi ez baduzu
joan plazarantz

LL : Pelloren oilo abila
a ze katramila
jan ditu dagoeneko
mila perrexila
a ze katramila
Pelloren oilo abila

– K : Tok tok tok
Josuk tok tok
hik ez dakik ezer
ni jakintsu nok

– T : Dut, dut, betilut
T/D ez dut, ba dut
beti betilut lut
dut, dut betilut



86.– TXA-TXA-TXA

MATERIALA:

Kanta egokiak aukeratu eta silabak komodin batez trukatu.

AZALPENA

Kanta motz ezagunak hartzea da kontua. Hitz batzuek ezabatzen dira eta hutsuneak bakoitzak nahi duen moduan bete behar ditu. Abestiari ahalik eta koherentzia handiena ematen saiatu behar da.

Aita Periko Seme Joaniko
TXA TXA TXA TXA afaiteko
TXA TXA TXA TXA TXA goxo-goxoa
TXA TXA beroa jateko.

TXA-TXA horiek silabak erritmoz kontatzen laguntzen dute, baina gabe ere eman daiteke abestia:

— — — — — banizkio

— — — — — izango zen

— — — — —

Bainan honela

ez zen gehiago — — — — —

eta nik — — — — — nuen maite.

Hutsuneak non ipini ondo pentsatu behar da. Hitz ezberdin asko sar daitezkeen tokietan ipini behar, noski.

Hona goiko adibideetatik atera litezkeen abestiak:

- Aita Periko, seme Joaniko
BERANDU DA afaiteko
HOZTU DA ZOPA goxo-goxoa
ARRAIN beroa jateko.
- GURPILAK KONPONDU banizkio
DOTORE izango zen
SOINURIK EGIN GABE
Bainan honela
ez zen gehiago MENDIRA IGOKO
eta nik ZIKLO-KROS nuen maite.

87.– BERTSOAK OSATZEN



MATERIALA

Doinu xamurra duten bertsoak aukeratu eta hitz batzuk kendu.

AZALPENA

Ikasleak bertso originala ongi ikasi ondoren, bertsoko zati batzuk kenduko dizkiogu berak osa ditzan.

Adibidez:

PASAIKO HERRITIK

Torillotik atera
zuten lehendabizi
behi zahar bat gidaria
bandera ta guzi
harrapatzen zuena
purrukatzen hasi
azkenian plazatik
kanpora ihesi.

OSATZEKO

_____ atera (7)
4 3

zuten lehendabizi (6)

_____ gidaria (7)
3 4

_____ ta guzi (6)
3 3

harrapatzen zuena (7)

_____ hasi (6)
4 2

azkenian _____ (7)
4 3

kanpora ihesi (6)



88.– KANTAK ASMATU

AZALPENA

Bertso serioak (zortzikoak etab.) egiten hasi baino lehenago, askoz samurragoa da bi puntuko koplatoak egitea, ahal bada doinu alaiak aprobetxatuz eta silaba kopurua “gehiegi” zaindu gabe.

Arabatik etorri gera
Hauxe da gure hasiera
trailalara...

→

Gorka dago oso aspertuta
gripez ohean geratuta
trailalara...

Garaziko herria
benedika dadila
euskarari eman dio
behar zuen tornaia

→

Milaren txakurrak hortzik
batere ez du ahoan
horregatikan hartzen du
esnea biberoian

Baratzeko pikuak
hiru txorten ditu
Neska mutil zaleak
hankak arin ditu.

→

Lehenago joan haiz
Andres komunera
Zerri horrek bota duk
lurrean papera



89.– BERTSO ZOROA

AZALPENA

Ikasle batek esaldi bat idazten du. Azken hitzak ez du errimarako oso zaila izan behar. Beste lagunek errimatzen duten esaldiak asmatu behar dituzte, nahiz edukinez zerikusirik izan ez. Azkenean esaldi guztiak segidan irakurrita “bertso zorua” edukiko dugu.

Adibidez:

Elefante txiki bat
asto bat zen sartu
atea jotzen dute
etzin ta lokartu
beti aurkitzen dugu
genuen esnatu
zuzendaria etorri
atea apurtu

90.– ESAERA ZAHARRAK



Esaera zaharrak jolas moduan ikas daitezke:

- Begiak noraino nahiak haraino.
- Agur luze haina labur, labur haina luze, agur hankaluze.
- Agur, ekarri lepo bete egur.
- Eguzki txuri, laister euri.
- Eguzkia eta euria Martiko eguraldia.
- Goiz gorri, arratseko iturri.
- Izotz urte, gari urte.
- Egur zaharra, su txarra.
- Apirila, biribila, zerria urdandegian hotzak hila.
- Azaroko eguna, argiko iluna.
- Garizuma goiz bazan, berandu bazan, erdia gutxienez negu zan, guztia ezpazan.
- Geroa, alferraren leloa.
- Martxoa birrinbi-barranda.
- Otsaila firili faraila.
- Urria esan eta urria izan.
- Urtarril hotza, neguaren bihotza.
- Urte barri, zoroak be igarri.
- Maiatzeko zazpi egun, zazpi hilebetetan lagun.
- Edurra teilatuan, zakua lepoan, ibili beharko dugu aurtengo neguan.

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)



91.- AHOKORAPILOAK

- "Aitaren kapa alkipean" (neska mutilek apostu egiten dute, ezetz 10 aldiz errepikatu)

Eta baita ere:

- "Kapa alkipean" "Alkipean kapa" "Kapa alkipean"...
- Martin akerra makerrakoren aker adar-okerra baino akerrik okerrik eztoz ikusi nik":
- "Aurten gure ortuan artoa berde erne da".
- "Kanbon *palangak pagoz" (Ezetz esan bederatzi aldiz arnasarik hartu gabe?)
- "Beleak Berreagarra zerbait daroa: badaroa berea daroa; baba errea ahoan daroa".
- "Boga, biga, hiruga, lauga, bosa, sea, sapa, zoka, berakatz, tronpa".

(Euskal-erriaren Yakintza-tik jasoa)

* Oharra: Palanga = presa (uretakoa)

G.- KONTAKIZUNAK

92.- HARITIK TIRA



MATERIALA:


Gai eta galdera posibleak prestatu.

AZALPENA

Galde-erantzun jokoa da. Hitz bat hartuko dugu jolasari hasiera emateko. Esate baterako: BASOA:

Hemendik aurrera galdetzaileen eta erantzuleen irudimena izango da bultzatzailea.

- *Basoa.*
- *Non dago basoa?*
- *Mendian.*
- *Nor bizi da basoan?*
- *Gizon zahar bat.*
- *Zer egiten du gizon zaharrak?*
- *Ardiak zaintzen ditu eta baratza dauka.*
- *Otsorik bada inguru horretan?*
- *Bai, bada otso gaizto bat.*
- ...



Behin egoera imaginario bat konkretatu ondoren, eta galde-erantzunekin aurrera jarraitu nahi ez bada, ikasle bakoitzak amaitu lezake kontakizuna idatziz.

93.- IPUIN ALDREBESAK




MATERIALA:

Ipuin klasikoak, nahiz haurrentzako ezagunak, oinarritzat harturik ipuin aldrebesak, farregarriak sortu.

AZALPENA

Haurrei kontatu egingo zaie, nahiz irakurtzeko eman. Ariketa posibleak:

- Galde erantzunak, ipuinaren ulermena lantzeko.
- Eritzi kritikoa eskatu, zein gustatu zaien gehien, hau ala klasikoa, Zergatik?
- Aldrebeskeriak topatu eta komentatu.



Hona hemen adibide bat:

EDURNE BELTZA

Behin batean bazen neska itsusi-itsusi bat, Edurne-Zuri izena zuen. Egun batean hondartzara joan zen eta eguzkia hartu zuen. Beltz-beltza geratu zen. Orduz geroztik Edurne-Beltza deitzen zioten. Egun batean Edurne-Beltza basoan zihoan kantari. Iluntzen ari zen. Ia gaua zen. Orduan etxe haundi-haundi bat ikusi zuen. Bertan sartu eta lotan geratu zen ohe baten gainean. Gauean zazpi erraldoiak etorri ziren lanetik. Neska hura han ikusi zutenean harrituta geratu ziren:

- Bai itsusia!
- Bai beltza!
- Afrikakoa izango da!
- Nere ohean etzan da!

Hartu zuten Edurne-Beltza, lurrean utzi zuten lotan eta ohera sartu ziren.

Hurrengo egunean Edurne-Beltza esnatu zenean zoroaren moduan farrez, honela galdetu zien erraldoiei:

- Zuek zazpi ipotxak zarete?
- Ja, ja, ja, ez, ez –eratzun zuten haiek–. Gu zazpi ERRALDOIAK gara. Orain lanera goaz. Zuk egizu bazkaria.

Bazen ordea baso hartan sorgin polit bat itsusi izan nahi zuena. Ispiluaren aurrean egoten zen keinuak egiten eta aurpegi itsusiak jartzen. Honela galdetzen zion ispiluari:

- Ispilu majikoa, esaidazu nor den baso honetako emakume itsusiena!

- Edurne-Beltza –erantzun zion ispiluak.
- Nor da hori? Non bizi da?
- Zazpi erraldoien etxean dago bazkaria prestatzen.

Joan zen beraz sorgina zazpi erraldoien etxera. Susto ederra hartu zuen sukaldean Edurne-Beltza ikusi zuenean. Hain itsusia zen!

- Arraioa! –esan zuen– hori bezalakoa izan nahi nuke nik ere.

Eta honela esan zion Edurne Beltzari.

- Sagar hau jaten baduzu polita izango zara.

Eta Edurne-Beltzak:

- Polita? Ja, ja, ja, nik ez dut polita izan nahi.
- A ez, e? Eta nola egin behar da itsusia izateko? Galdetu zuen sorginak.

- Oso erreza da, maitea. Jan ezazu txokolate hau!

Sorginak jan zuen eta itsusi bihurtu zen. Haren poza!

- Aizu Edurne-Beltza, utzi erraldoien bazkari hori eta goazen dantzara! Esan zuen sorgin itsusiak.

Esan eta egin, biak eskutik heldu eta dantzara joan ziren saltoka eta kantari.

ALDAERA



AZALPENA

Ipuin bat emango zaie hitz (hitz multzoak) azpimarraturik dituela, aldrebeskeriengatik trukatzeko.

Ipuinaren luzera ikasleen adinaren arabera izango da.

Gero batzuren lana ozenki irakurri, entzutez aldrebeskeriak jaso eta komentatu.

Adibideko ipuina oso luzea gerta dakieke ikasleei, beraz, bi zatitan banatua (a eta b), ematea egokiago ikusten da.

Abidibea:

AZERIA ETA BI TXIMUAK

Aldatzeko hitz posibleak

- a) **Baso guztian** ez zegoen Tim eta Tom baino tximu bihurriagorik. Baina ezta Pink azeria baino argi eta maltzurragorik ere.

Ilargi guztian

Goiz batez Tim eta Tom bihurrikeriak egitera joan ziren.

Amak beti esan ohi zien **basotik** ez irteteko, baina egun hartan ez zioten jaramonik egin.

komunetik

Bi tximuek bazekiten basotik kanpora gizonak bizi zirela. Eta nahiz eta beraien antzekoak izan, **txapela** eramaten zutela eta ez zekitela **zuhaitz gainetara igotzen**.

mokuzapia
ongi hitzegiten.

Zer bururatuko eta bihurrikeria bat gehiago bururatu zitzairen. Gizonei adarra jotzea pentsatu zuten. Egun hartan bero handia egiten zuen eta gizon gehienak **siestan** zeuden.

eskiatzen

Lehenengo aurkitu zuten etxeko leihotik begiratu eta gazta bat ikusi zuten. Gazta **eder** bat mahai gainean.

ustel

– Begira Tim! – esan zuen Tomek.

– Zein ongi! lufil! –esan zuen Timek–. Badugu gaurko **bazkaria!**

edaria

Eta gazta hartuz korrika ihes egin zuten.	utziz
Geroxeago berriz ere bi tximuak basoan ziren zuhaitz enbor baten ondoan eseri eta gazta banatzen hasi ziren.	zapaltzen
– Bueno –esan zuen Timek–, orain bi zati berdinetan erdibitu behar dugu gazta hau.	saldu
– Baina, berdinak e!, zu beti handiagoarekin geratzen zara eta –erantzun zion Tomek.	txikiagoarekin
Timek egin zituen bi zati, baina Tom berehala hasi zen protestatzen berea txikiagoa zela esanez.	usaintsuena
b) Pixka bat geroxeago biak borrokan zebiltzan zati handiagoa lortu nahian.	lehentxoago
Horrela zebiltzala, Pink azeria agertu zen.	
– Bakea, bakea! –deika hasi zen–. Zer gertatzen da hemen horrela elkar joka ibiltzeko?	musuka
– Zera, honek gazta zati handiagoa nahi duela berarentzat –esan zion Tomek erdi nigarrez	txatxilipurdika
– Hori ez da egia! –esan zuen Timek–. Zu beti ibiltzen zara berdin! Beti protestatzen!	kantatzen
– Nahikoa da! Ez horrela jardun! Neuk konponduko dut arazo hau, berehala gainera.	datorren urtean
Bi tximuei ondo iruditu zitzaaien auzia erabakitzea. Azeriak bi gazta zatiei begiratu eta honela esan zuen:	
– Egia esan, Timen zatia handiagoa da. Pixka bat kenduko diot.	beltxagoa
Eta haginkada bat eman zion. Haginkada handitxoegia egin zion azeriak eta zati hura bestea baino txikiago geratu zen. Orduan Tim mek protestatu zuen.	aizkorakada printzesak esan
– Ez dago eskubiderik, orain beste hori da handiagoa.	
– Lasai, ez arduratu –esan zuen Pinkek. Eta Tomen zatiari haginkada bat egin zion.	atzaparkada

- Orain hau da txikiagoa –esan zuen Tomèk.
- Bai, egia da –esan zuen azeriak–. Ea ba oraingoan... ba ez, orain beste hau txikiagoa da. Beste haginkadatxo bat egingo diot... Honixe beste apur bat kendu eta konponduta...

Eta horrela jarraituz, **azeria zati biak janez joan zen.**

azeriak gaztaia lurperatu zuen

Azeria ase zenean eta bi gazta zatiak txiki-txikiak geratu zirenean:

- Begira, ia berdintsu daude biak. Orain lasai has zintezkete jaten, **borrokan** egin gabe.
- Baina hor ez da ia gaztarik geratzen!
- Noski. Izan ere, sekulako lana eman bait dit bi zatiak **berdintzeak**. Agur eta on egin!

gimnasia

neurtzeak

Hori esanez azeria barrez joan zen, atzean bi tximuak **haserre bizian** utzita.

poz-pozik.

("Zipristin 3"tik hartua, ELKAR 1983)

94.- KORRU ZOROA



AZALPENA

Korruan esertzen dira denak. Lehenengoak bigarrenari galdera bat egiten dio:

– *Zertarako balio du makilak?*

Eta honek erantzun:

– *Jotzeko.*

Orain bigarrenak egiten du galdera:

– *Zertarako balio du janariak?*

– *Jateko.*

Eta honela korruko guztiek parte hartu arte.

Gero bigarren bira hasten da. Jokalari bakoitzak berari egin dioten galdera eta jaso duen erantzuna gogoratu behar ditu.

Eta honela esan:

– *Lagun honek galdetu dit ea makilak zertarako balio duen eta beste honek "jateko" erantzun dit.*

Oso konbinazio xelebreak ateratzen dira eta behin mekanika ikasiz gero galderak moldatzen dituzte erantzun zoroagoak entzuteko.

ALDAERA

Beste era bateko galderak ere egin daitezke:

Zer egiten du

*amak
aitak
lehoiak
andereñoak
katuak*

Non ibiltzen dira

*abioiak
arrainak
arratoiak
toreroak*

Zer koloretakoa da

*zerua
itsasoa
lorea
kotxea*

?

.....




95.- IPUIN BERRIA

AZALPENA

Ipuin bat asmatu behar da zenbait ikasleren artean. Bakoitzak esaldi bat edo bi esango ditu, eta hurrengoak hariari jarraitu beharko dio.

- A.- Behin bazen herri bat arbolarik gabekoa.
Bertako jendeak ez zuen inoiz zuhaitzik ikusi.
- B.- Txoriek lurrean edo teilatuetan egiten zituzten habiak.
- C.- Baina egun batean Katalin izeneko neska bat kanpora joan zen lan bila, urrutira. A zer sustoa hartu zuen lehenengo arbola ikusi zuenean.
- D.- Hainbeste gustatu zitzaion deskubrimendua etxera bat eramatea pentsatu zuela.

.....



96.- ARAZOA KONPONDU



MATERIALA:

Egoera posibleak eta atseginak presta daitezke.

AZALPENA

Idatziz edo ahoz egin daiteke. Arazo edo egoera larri bati irtenbide bilatzen saiatu behar du ikasleak.

Adibidez:

- Zu etxe batean lapurtzen ari zara. Etxekoak lotan daude. Halako batean ustegabeen aulki bat jo eta soinu handia egin duzu. Zer egingo zenuke?
- Lagun bat ezkontzen da. Bodara konbidatzen zaitu baina zuk ez duzu joateko gogorik. Zer esango zenioke?
- Kotxez zoaz. Mendi bat jaisten ari zara kurba askotako bide batetik. Frenoak gehiegi berotu dira eta, halako batean ez dutela funtzionatzen konturatzen zara. Zer jokabide hartuko zenuke?
- Basotik zoaz. Perretxiko pozoitsu bat hurbiltzen zaizu eta txapela kentzeko eta jateko esaten dizu. Zer erantzungo zenioke?
- Gaua da, eta zure etxerako bidea ilun dago. Bapatean farola bat zuri jarraika dator. Gelditu eta zer esango zenioke?





97.- TESTUA ASMATU

MATERIALA:

Komikia, txiste mutuak,...

AZALPENA

Komiki bateko hitzak ezabatuko ditugu, fotokopiak atera eta ikasleei banatu. Ikasleek, banaka edo taldeka, testu bat jarri beharko diote.

Antzeko prozedura jarrai liteke fotonobeekin, edo iragarki grafikoe-kin, egunkarietako argazkiekin etab.



(“Ipurbeltz”etik hartua)

98.- IRUDIEI TESTUA IPINI



MATERIALA:

Argazkiak edo irudiak aukeratu.

AZALPENA


Argazki egokiak biltzen dira egunkarietatik, aldizkarietatik etabar, eta ikasle bakoitzak testu bat asmatuko du.

Testua estilo desberdinetakoa izan daiteke:

- pertsonaiek esaten dutena
- argazkiaren azalpena, egunkarien antzera
- komentario pertsonalak.
- ...

Idazten hasi aurretik, ahoz lantzea komeni da, hemengoen antzerako galderak eginez:

- *Zer ari da pentsatzen gizon hori?*
- *Zer gertatu zaio?*
- *Alai ala triste doa?*
- *Atsegin al zaio irakurtzea?*
- *Zergatik gelditzen da liburuari begira?*
- *Zer irakurri du liburu horretan?*
- *Ulertzen al zuen irakurritakoa?*
- *Bere gorputzak betetzen al ditu buruaren aginduak?*
- *Gorputzari interesatzen al zitzaion liburuak zekarren mezua?*
- *Eta buruari?*
- *Nola dakizu?*
- *Zer nabaritu zuen gizon horrek gorputza eta burua banandu zirenean?*
- *Inoiz gertatu al zaizu hori? Gorputzak bete ez zure buruak bidalitako agindua?*
- *Noiz? Zer sentitu zenuen?*
- ...



(*"Para ti nuestro lenguaje"*tik hartua. Santiago Rodríguez, S.A.)

Hona hemen BBBko 1. mailako bi ikaslek egindako idazlanak:*

DESGRAZIA

Hantxe nenbilen kalezuloan hara-hona denbora hil ezinik. Andre madarikatuak etxetik bota ez ninduen ba! Desgrazia hutsean aurkitu nintzen sentimentuak nere buruan ezin egonik kanporatu zitzaizkidan, erabat atzerritar sentitzen nintzen. Ikusmena satórrarena bihurtu zitzaidan, belarriak berriz, lurrian ziren hots monotono denak bilakatzen zituzten, hala ere zenbat eta gehiago entzun nire pausoak, gero eta gogorragoak aditzen nituen. Nor bizi zitekeen nire egoera hartan?


Espaloia zehar etxeak atzean uzten nituela, banindoan triste baino goibelago, ezkerretan pareta eta bestekaldean autoak geldiezinik, zaratatsu zihoazela. Bapatean kristal refexu batek atenzioa deitu zidalarik, han non ikusten dudan liburu bat, itxuraz zaharra, eta hizkiak txikiaren ipotxak ziren. Hala ere igarri izan nuen neska mutilei buruz zihoala gauza. Interesgarria, esan nuen nere baitan, nere gorputzean korapiloren bat askatuko balitz bezala. Geldi geratu nintzen, baina hankak mugimenduan neuzkan, begiak liburua irakurtzen ahalegintzen ziren, aldiz, gorputzak ez zuen geratzeko itxurarik. Momentuan azken arnasa izan nuen, zerebroa urtzera zihoala iruditu zitzaidalarik gorputz eta buru, denak batera, hantxe erori nintzen kalezuloan desgrazia nere barnean zela.

Iñigo Akizu

* Oharra:

Ariketa desberdinak egin daitezke:

- a/ Nere etxeko leihotik begira nengoela gertakizun hau ikusi nuen. (3. pertsonan)
- b/ Kaletik nindoala honako sorginkeria hau gertatu zitzaidan. (1. pertsonan)



("Esaera zaharrak eta txiste berriak"etik hartua)

MANOLO GURE HERRIKO LAPURRA

Manolo dugu gure herrian lapur argia, berak ezagutzen dituen metodo original guziak ikustekoak dira. Baita ere bere lapurretetan jausten diren inozente guzien aurpegi harrituak. Gaur ere hor doa kalean barrena bere eskuetan gure herriko alkatearen irudi bat duen globo bat daramalarik. Ez da jendea gutxi harritzen globo hau ikusterakoan, ez da ere konturatzen, globo honen lana zein den. Bitartean gure herriko zenbait pertsona gizajoak globoari begira dauden bitartean Manolo laster baino azkarrago hasten da bere esku inozenteak pertsonen poltsiko beteetan sartzen, eta argi dago poltsiko horietatik zer ataratzen duen gure Manolo pikaroak. Pedrok gizonari dirua ostutzen ari den arren, gizona ez da konturatzen. Globodun gizona ezik beste guziak globoari begira daude. Ni ere globoari begira nago, txakurra ere dago eta.

Miriam Txintxurreta



99.– ALBISTE EMANKIZUNA

MATERIALA:

Albisteak prestatu:

AZALPENA

Telebistan egiten dutenaren antzera, albisteak ematea da kontua. Berriak benetakoak izan daitezke batzutan eta asmatuak besteetan, baina beti aurrez prestatzea komeni da talde txikitan.

Ondoren prestatutako albisteen berri emango zaie gelako gainerako ikasleei:

- Bai irakurriz
- Bai aldez aurretik grabatutako kasetak entzunez.
- Bai bideoan grabatutakoak ikus-entzunez.



100.– KONTU-KONTARI

MATERIALA:

Gai nahiz pertsonaia egokiak aukeratu.

AZALPENA

Narrazioak eta idazlanak sortarazteko ez da nahiko izaten askotan hitz bateko gaia ematea (Oporrak, Zuhaitzak, Negua, etab.) edo gaia ikasleen eskuetan libre uztea.

Hona hemen beste bide batzuk:

A.– Kontakizun bat irakurri baina amaierara iritsi gabe. Ikasleek asmatu beharko dute bukaera.

B.– Kontakizunaren hasiera emango zaie.

Adibidez:

- Behin batean bazen hiru esku zituen gizon bat...
- Gaur goizean ez naiz oso umore onez itzarri. Despertadorea lurrera bota dut kolpe batez...

C.– Esaldi batez zehaztu liteke gaia.

- “Gurasoak asko haserretzen dira, baina ez dira gogoratzen berak ere gazteak izan zirela”.
- “Jose Mari oso harroa da, baina ez nau ni beldurtuko”.
- “Mendiko landareak makurtzen ari dira”.

D.– Bi edo hiru hitz klabe emango ditugu, horien inguruan zerbait asmatzeko.

- Kapitaina / ipotxa / gatz.
- Boligrafoa / euria / malkoa.

101.– GEZURRAK AURKITU



MATERIALA:

Testuak hitz trukatuaz prestatu.

AZALPENA

Bi edo hiruko talde batek gai bat prestatuko du gelaren aurrean aurkezteko. Azaltzen dituzten gauzen artean, ordea, gezurrezko daturen bat sartuko dute. Besteek adi-adi egon beharko dute gezurra igartzeko.

Adibidez:

- ... Udan bero handiagoa egiten du neguan baino. Eta gainera, **haize beroa behera joaten denez**, beheko etxebizitzetan bero handiagoa izaten dute goikoetan baino.
- ... Elefanteak ezagutzen ditugun ugaztun handienetakoak dira. Afrika, Indian eta **Amerikako hegoaldean bizi dira**.
- ... Arabeak Afrikatik sartu ziren peninsulara. **Etorri zirenean ez zekiten irakurtzen eta hemengo jendeak baino maila kultural bajuagoa zeukaten**. Zortzirehun bat urte egon ziren lurralde hauetan...

ALDAERA

Testu bat irakurriko zaie ikasleei, ondoren testu bera irakurriko zaie aldaketa batzuk eginez. Aldaketa hauek semantika mailakoak dira.

Ikaslea bere koadernoan apuntatuz joango da bi testuen artean nabaritu dituen desberdintasunak. Jolas hau entzutez edo irakurriz egin daiteke.

Hona hemen bi adibide:

- Koxme herri txiki batean.
- Gulliverren bidaiak.

“KOXME HERRI TXIKI BATEAN”

a) Testu originala

Koxme, bederatzi urteko mutiko pixkor eta alai bat, udara hasi eta berehala iritsi zen herri hartara. Herriko festak hurrengo astean izatekoak ziren eta enparantzaren erdian oholez egindako tablado bat jarria zegoen.

Koxmeri ez zitzaion oso atsegina herri hura. Oso txikia zen eta ez zen erraza jolaserako leku egoki bat aurkitzea. Bera oso ondo moldatzen zen Donostian eta baita ere Zarautza izebarengana joaten zenean, baina herri kaxkar hartan?

(Erdiko Zikloko Euskararen Programakuntza. D eredua. Eusko Jaurlaritza 1982)

b) Testu egokitua

Koxme, bederatzi urteko mutiko *koskor* eta alai bat, udara *hezi* eta berehala iritsi zen herri hartara. Herriko festak *aurreko* astean izatekoak ziren eta enparantzaren erdian oholez egindako tablado bat *larria* zegoen.

Koxmeri ez zitzaion oso *aterkina* herri hura. Oso txikia zen eta ez zen *erratza* jolaserako leku egoki bat *garbitzea*. Bera oso ondo *goldatzen* zen Donostian eta baita ere Zarautza izebarengana joaten zenean, *baino* herri *zakar* hartan?

“GULLIVERREN BIDAIAK”

a) Testu originala

Azaroaren 5ean, udaren hasera lurralde hartan, marinelek harkaitz bat ikusi zuten untzitik nahiko gertu. Benetan egiten zuen eguraldi txarra egun hartan. Haizeak, indartsu erasoz, harkaitz haren kontra jautiki gintuen eta untzia hondoratu egin zen. Sei marinelek, neu barne, txalupa bat uretara bota eta untzitik eta itsasaitzetik urrutiratzea lortu genuen arraunak bizkor astinduz. Nire kontutan, hiru leguatan aritu ginen arraunean; eta ondoren, erabat ahuldurik, arraunak utzi egin behar izan genituen eta uhinen jostailu bihurtu. Ez geneukan ezertarako indarrik. Ordu erdi bat geroago haize bolada beldurgarria sortu zen iparraldetik eta txalupa irauli zigun. Ez nuen gehiago nire lagunen berririk izan, ez txalupan nirekin zeudenetaz eta ezta untzian edo harkaitzetan geratu zirenetaz ere. Baina beldur naiz denak hil ote ziren.

(Zipristin 5etik hartua, ELKAR 1983)

b) Testu egokitua

Azaroaren 5ean *udarearen* hasera lurralde hartan, marinelek harkaitz bat ikusi zuten *iltzetik* nahiko gertu. Benetan egiten zuen eguraldi *xerra* egun hartan. Haizeak, indartsu erasoz harkaitz haren kontra jautiki gintuen eta untzia *liberatu* egin zen. Sei marinelek, neu barne, txalupa bat uretara bota eta untzitik eta itsasaitzetik *aldaraztea* lortu genuen *arrainak* bizkor astinduz. Nire kontutan, hiru leguatan aritu ginen arraunean; eta ondoren, erabat *aholkurik*, arraunak utzi egin behar izan genituen eta uhinen jostailu bihurtu. Ez geneukan ezertarako *larrigurarik*. Ordu erdi bat geroago haize *pasada* beldurgarria sortu zen iparraldetik eta txalupa irauli zigun. Ez nuen gehiago nire lagunen berririk izan, ez txalupan nirekin zeudenetaz eta ezta untzian edo *hatzaparretan* geratu zirenetaz ere. Baina beldur naiz denak hil ote ziren.

Honako hauek dira egin diren aldaketak:

● “Koxme herri txiki batean”

(a)	(b)
pixkor.....	koxkor
hasi	hezi
hurrengo.....	aurreko
jarria.....	larria
atsegina.....	aterkina
erraza.....	erratza
aurkitzea.....	garbitzea
moldatzen.....	goldatzen
baina	baino
kaxkar	zakar

● “Gulliverren bidaiak”

(a)	(b)
udaren.....	udarearen
untzitik	iltzetik
txarra.....	xerra
hondoratu.....	liberatu
arraunak	arrainak
ahuldurik.....	aholkurik
indarrik	larrigurarik
bolada	pasada
harkaitzetan	hatzaparretan



102.- HORI HORRELA BALITZ

MATERIALA:

Galderak eta hipotesi desberdinak pentsatu.

AZALPENA

Hipotesi desberdinak planteatuko ditugu, ikasleek ondorioak pentsa ditzaten.

- *Zer gertatuko litzateke txokolatezko harriak egongo balira?*
 - *Jan egingo genituzkeela*
 - *Lanik egin gabe biziko ginatekeela*
- Koloreek gustoa balute, zer gusto izango luke horiak?
 - *Platano gustoa*
 - *Ogi gustoa*
- Urte guztia uda balitz...
 - *Oso beltzak egongo ginatekeela*
 - *Ez genukeela katarrorik harrapatuko*
- Goazen amets egitera. Zuk zer egingo zenuke gustora?
 - *Nik zaldia izan nahi nuke.*
 - *Ni ilargira joango nintzateke.*
 - ...



103.- MARRAZKIZ IDATZI




MATERIALA:

Marrazkian agertzen diren irudiekin kartatxoak osatu. Papera kartulina batean pegatu eta gero plastifikatu. Haur txikiagoekin marrazkian agertzen den bezala, kartulina haundi batzutan marraztu soka batetik zintzilikatzeke.


AZALPENA

Ikasleak hasieran kodigoa ezagutu beharko du. Irudi bakoitzaren esanahia. Gero oso esaldi sinpleak irakur araziko zaizkio.

Adibidez:



Ardiak



otroa




leus du

Haurrak ez du materiala manipulatuko mezua ongi jasotzen jakin arte.

Irakurtzen ez dakiten haurrak balira, beti ere gogoraraziko zaie ordena (ezkerretik eskubira). "Hemendik hasten da", esanaz; eta behatzekin jarraituz irakurtzen ari den eran: Modu honetan "aurre idazketa"ko ariketa bezala erabil daiteke.

Esaldiak konplika ditzakegu aurrerago azaltzen den bezala.

Haurrek kodigoa ongi ezagutu ondoren, beraiek asmatuko dituzte perpausak. Txikiei ordena gogoraraziko zaie.



Material hau banaka nahiz taldeka erabil daiteke.

Banaka: Haur bakoitzari marrazkien fotokopia emango diogu. Haurrak perpausak asmatuko ditu, eta bere lagunei irakur arazi.

Taldeka: Talde bakoitzari joko oso bat emango diogu (30 karta)

Hona hemen erabiliko diren marrazkiak:

IZENAK

- 1) ardia
- 2) otsoa
- 3) kamioia
- 4) etxea
- 5) aitona
- 6) neskatila
- 7) mutikoa
- 8) autoa
- 9) katua
- 10) txakurra
- 11) amona
- 12) baloia
- 13) mutila
- 14) neska
- 15) mendia
- 16) sagarrak
- 17) sagarra
- 18) giltza
- 19) giltzak

EKINTZAK

- 20) maitatu
- 21) ikusi
- 22) entzun
- 23) jan
- 24) hartu
- 25) gelditu
- 26) apurtu
- 27) erosi
- 28) joan
- 29) jaitsi
- 30) igo


Orain arte erabili ditugun esaldiek honako egitura hau dute: Sujetoa – Osagarri Zuzena – “Nor-Nork” aditza.

Jolas honetarako oso egokia da egitura hau.

Bestelako egitura duten esaldiak ere erabil daitezke, baina egitura batekin hasiz gero komeni da beste batekin ez nahastea, hasieran behintzat. Haurrek irakurtzen badakite, hitz edo atzizki batzuk sar daitezke lagungarri gisa.

Aditza beste aldi batean ipintzeko geziak erabiliko ditugu. Haur txikienekin sistema hori zailegia gertatzen bada, aski da aurretik ATZO, GAUR, ORAIN, BIHAR eta honelakoak esatea.


Paperak arbelean edo fanelografoan ere pegatu daitezke. Edo baita ere soka batean zintzilik ipini. Nolanahi ere tokiz aldatzeko era errazean, honela esaldien aldaerak egiteko.




Honelako ariketak onuragarriak izan daitezke euskararen sintaxi berezia lantzeko eta haurrarena zuzentzeko.

Elementu berriak sortzea eta konbinatzea oso erraza da. Haurrek, beraz, oso gustora egingo dute, nahiz txarteletan, nahiz nork bere koadernoan.


Adibideak:




Ardiak




Otsoa




ikusi du



Otsoak




ardia




jan du.


Hizkuntzaren kontrasteak nabarmentzeko ere balio du
(Nor/Nork; Sg/Pl...)



mutilak




sagarra




hartu du


Baina:



mutilak




saganak




harte ditu.


Genitiboa sartzeko bi irudi kartulinazko koadro batean sartuko ditugu, sintagma berekoak direla adierazteko:



kamioiak




aitarekin kotxea




belztatu du.


Denboraldiak berezi nahi izanez gero honela egin daiteke:



erosi zuen



erosen du



erosiko du

Hona hemen beste zenbait esaldi:




Amona




etxetik


-TIK




jaitsi da




Txakurrak




katurak




maite du.




Amonaren katurak




aitonaren betaurrekoak



hautsi ditu.





H.– HAUSNARTZEKOAK

104.- HITZAK LOTU



MATERIALA:

Erreferentziazko hitzak, eta esaldiak prestatu. Haurrei banatzeko plantilak ere bai.

AZALPENA

Lehenik erreferentziazko lau hitz (ahal bada interesgune zabalak izan daitezela) emango ditugu. Adibidez: HONDARTZA-ETXEA-KALEA-ZIRKOA. Gero irakaslea hitz solteak diktatuz joango da eta hitz horiek goiko lau hitzetako batekin lotu behar dira, horrela lau multzo osatuz.

Ikasleari, hemen agertzen den antzerako plantila emango, zaio, betetzen joan dadin.

Adibidez:

HONDARTZA	ETXEA	KALEA	ZIRKOA
<i>olatu</i> <i>londarra</i> <i>bero</i> <i>igari</i> <i>itsasoa</i> <i>txalupa</i> <i>eguzkia</i> <i>lusti</i>	<i>olea</i> <i>gurasoak</i> <i>sukalde</i> <i>teletista</i> <i>lapikua</i> <i>bainugela</i> <i>goilarea</i> <i>bazkaldu</i> <i>babestu</i>	<i>boterea</i> <i>espaloia</i> <i>semaforoa</i> <i>denda</i> <i>zebra pasabidea</i> <i>eskaparatea</i> <i>zarata</i> <i>kea</i>	<i>pailazoak</i> <i>barre</i> <i>elefantea</i> <i>tximinwa</i> <i>originkeriale</i> <i>majia</i> <i>lona</i> <i>titiroleroa</i> <i>malabarista</i>

ALDAERA

Hitz solteak izan beharrean, esaldiekin ere berdin joka daiteke. Horrela gehiago lantzen da ulermena, nahi diren egitura sintaktikoak sartuz. Ez zaizkie esaldiak ordenan diktatuko, noski.

Adibidez:

ZALDIA	Ikuluan egoten da. Lau hanka ditu. Gainean ibili naiz.
ZARTAGINA	Janariak preitzeko balio du. Borobila da. Sukaldean egoten da.
ZAPATILAK	Oinetan jartzeko balio dute. Bero-beroa izaten dira. Zapatadendak erosi nituen atzo. Etxean jantzi ditut.
GURAI-ZEAK	Ebakitzeko balio dute. Zorrotzak izaten dira. Kajian gordetzen dira. Argazkiak ebaki ditut.

Singularra eta plurala erabil daitezke pista gisa, adibide honetan egiten den bezala, "balio dute" esanez gero ezin "zaldia" izan, pluraleko zerbait baizik.



105.- HITZ ARDATZA

MATERIALA:

Edozein hitzek balio dezake hasteko.

AZALPENA

Hitz bat goitik behera idazten da, eta haren letra bakoitzaz beste bana asmatu beharko da.

Bai honela:

K olpe
A rtz
L o
E rle

Bai honela:

a L kohol
arm l arma
la B ezomorro
z U
a R mario
g U rpil

106.- HITZ GILTZARRIA



MATERIALA:

Erreferentziazko hitzak prestatu.

AZALPENA

Ikasleak zutik jartzen dira korroan, eta irakaslea korroaren erdian pilota batekin.

Irakasleak hitz giltzarri bat esaten du. Haur guztiek hitz horrekin erlazioa duten hitzak pentsatuko dituzte. Irakaslea pelota bati eta besteari pasatzen hasiko da. Haurrek pelota hartu, hitza esan eta irakasleari bueltatu behar diote. Honela hitzak bukatzen ari zaizkiela ikusi arte.

Hona hemen erreferentziazko hitz posible batzuk:

- | | |
|-----------|-----------------|
| – Negua | – Azoka |
| – Uda | – Oporrak |
| – Mendia | – Herriko jaiak |
| – Itsasoa | – Jantziak |

Hitz giltzarria soilik esan beharrean, honelako galderak ere egin daitezke.

- *Zer egin daiteke azokan?*
- *Nola pasa daiteke azokan?*
- *Zer ikusi daiteke azokan?*

ALDAERA

AZALPENA

Hitz bakar baten eremu semantikora mugatu beharrean asoziazio libreak eginez.

Adibidez: Itsasontzia-arraina-haragia-behia-adarra-zuhaitza...

ALDAERA

AZALPENA

Hitz giltzarria eman eta haren inguruko hitzak idatzi behar dituzte ikasleek.

Adibidez:

ITSASOA

- itsasontziak
- marinela
- kapitaina
- kontramaisua
- arrainak
- legatza
- bakailaua
- txitxarroa
- txipiroiak
- sareak
- olatuak
- hondartza
- ekaitza
- txalupa
- arraunak



107.– AURKAKOAK

MATERIALA:

Aurkakoa duten hitzen zerrendak prestatu.

AZALPENA

Hamar haur inguruko talde bat hartzen da eta hitz bat esaten zaio bakoitzari belarrira.

Gero kopuru bereko talde bati kontrako hitzak esaten zaizkio.

Hona hemen bikote batzu:

tristeia - alaia
gizena - argala
astuna - arina
goian - behean
asko - gutxi
garbia - zikina
zabala - estua


handia - txikia
zintzoa - gaiztoa
azkarra - motela
luzea - motza
argia - iluna
azkar - poliki
hemen - han

gainean - azpian
iriki - itxi
luze - motz
egin - desegin

tente - makur
joan - etorri
gizen - argal

Azkenik haur guztiak nahasten dira, eta bakoitzak bere bikotea aurkitu behar du beste denei banan-banan galdetuz gelan zehar.

- 1.- *Ni "zintzoa" naiz, eta zu?*
- 2.- *Ni "argala"*
- 1.- *Orduan ez gara bikotea.*
- 1.- *Ni "zintzoa" naiz, eta zu?*
- 3.- *Ni "Gaiztoa"*
- 1.- *Ederki, aurkitu gara*



ALDAERA

MATERIALA:

Testu egokiak aukeratu.

AZALPENA

Ikasleari testu bat emango zaio; testuan azpimarratuta aurkituko ditu hitz batzuk. Hau esango diogu:

- Idazleak gaizki idatzi du testu hau, azpimarratuta dauden hitzak ez dira oiriginalak, bakoitza bere aurkakoaz trukatu du. Idatz ongi testu originala.

GUARAÇU

Batere ez alaiturik, aurpegia eskuez **agertu** zuen. Hala egon zen denbora **motzez**, zuhaitzaren arrimoan eserita, txoriaren zain, baina txoririk ez zen **desagertu**.

Nola **etorri** behar zuen **lehen** auzora? Zuhaitz haiek ez zioten biderik **ezkutatu**. **Baju** eta **hostorik gabe**, zerua estaltzen zioten. Noruntz jo?

Lehenengoan, ibiltzen **bukatzea** erabaki zuen bidea **ezezaguna** balitz bezala, baina ez zuen paraje **ezezagunik** ikusten.

Egun tropikal hura **azpian** eta Guaraçu **aurkiturik** zebilen. **Bazekien** zer egin.

(Zipristin 5etik hartua, ELKAR 1983)



108.- JEROGLIFIKOAK

MATERIALA:







Jeroglifikoak asmatu.

AZALPENA

- Marrazkiak tartekatzen dira esaldietan. Ikasleek haien izena asmatu behar dute eta esaldiak ondo irakurri.

Nere  galdu zait. Uste nuen  -an utzi nue-
la. Baina  batek  -ean ahaztu zaidala
esan dit.  -etan zulo bat egin zait.

- Haurrei jeroglifikoak emango dizkiegu osa ditzaten.

Bazen behin  batean bizi zen  Egunero
bere  -tik irten eta  bila hasten zen.
Behin  batekin elkartu zen, eta honek 
oparitu zion.  oso pozik  -aren  -ra

joan zen bizitzera betiko.



109.- NOLA BUKATU HALA HASI

AZALPENA

Hitz bat idatziko da lehenbizi eta honen azken letraz hasten den beste hitzen bat bilatu behar da lehenengoari lotzeko, etab.

ARDO - OGI

Jakina, hitzak mugatzailerik gabe eman behar dira. Bestela denak amaituko lirateke -A letraz.

Bestalde TZ edo TS fonimez hasten diren hitzik ia ez dagoenez, azken letra bakarrik hartuko dugu kontuan, eta "Z" edo "S"-ez emango diegu segida.

URRATS - SAGU

ardo - ogi - ikara - asto - orlegi - ijito -

110.- AMAIERA AURKITZEN



MATERIALA:

Hasiera eta amaiera dituzten tarjetak egin. Galde-erantzunak dituzten tarjetak egin.

AZALPENA

Haur bakoitzak tarjeta bat du. Bertan esaldi baten hasiera eta beste baten amaiera agertuko dira.

Batek hasiera irakurtzen du ozenki eta dagokion amaiera duenak ere irakurri egin behar du.

Ondoren arbelean idazten joan daitezke amaiera bakoitza bere hasieraren ondoan.

Hona hemen hasiera-amaiera posible batzuk, estilo desberdinetakoak:

HASIERA:
Eztia egiten duen
zomorroak
AMAIERA:
asteazkena da

HASIERA:
Ostegunaren aurreko
eguna
AMAIERA:
ez da ikusten

HASIERA:
Etxea estaltzen duen

AMAIERA:
hegan egiten du

HASIERA:
Etxeko katua

AMAIERA:
teilatua gorria da

HASIERA:
Egunez zeruan agertzen
da baina gauez
AMAIERA:
bertan arrainak
bizi dira

HASIERA:
Itsasoa urdina
da eta
AMAIERA:
ohe gainean
egoten da

ALDAERA

Hasiera eta amaierak izan ordez galde-erantzunak izan daitezke.

GALDERA:
Zein urtarotan izaten
ditugu oporrik luzeenak?
ERANTZUNA:
Gerezia

GALDERA:
Zein da beti gorria den
fruta?
ERANTZUNA:
Iraila

GALDERA:
Zein da hobeto ikusteko
erabiltzen dugun tresna?
ERANTZUNA:
Grua

GALDERA:
Zenbat hanka batzen dute
sei txerrikumeek?
ERANTZUNA:
Betaurrekoak

GALDERA:
Zein da oso haundia izan
arren oso izen motza
duen tresna?
ERANTZUNA:
Udan

GALDERA:
Zein da urteko
bederatzigarren hilabetea?

ERANTZUNA:
Hogeitalau

111.- AUKERA EGIN



MATERIALA:

Hitz sailak aukeratu eta txartelak prestatu.

AZALPENA

Jolas honek aukera pertsonalak egitera bultzatzen du eta hor dago bere interese berezia.

Lehenik hitz serie batzuk egiten dira, hitz bakoitza paper haundi samar batean idazten delarik.


Adibidez:

ZAHARRA	BERRIA				
HOTZA	BEROA	EPELA			
UDA	UDAZKENA	NEGUA	UDABERRIA		
GORRIA	BELTZA	BERDEA	HORIA	URDINA	
BATIDOA	URA	ZUMOA	TXAKOLINA	ESNEA	GASEOSA

Ikusten denez lehenengo serieak oso kontrako diren bi hitz ditu. Hurrengoak 3, 4, 5 eta 6 hitzez osatuak dira.

Ondorengo pausua hau da:

Lehenengo bi hitzak (ZAHARRA eta BERRIA) gelako bi paretetan (edo bi leku ezberdinetan behintzat) ipintzen dira. Horien gainean hurrengo seriea pegatzen da, aurrekoa estaltzen. Halere, paper bat gehiago denez, sobra den hori beste horma edo leku batean itsatsiko dugu.



Beste serieak gainean ipintzen dira. Hormetan beraz, serie luzeena besterik ez da ikusiko azkenean:

BATIDOA	URA	ZUMOA	TXAKOLINA	ESNEA	GASEOSA
---------	-----	-------	-----------	-------	---------

Jolasa hasteko prest dago. Hemezortzi lagun inguruko taldea da egokiena. Bueltak ematen hasten dira gelan eta aukeratzen duten hitzaren ondoan gelditzen da bakoitza. Taldetxoak osatuko dira hitz batzuen aurrean, ikasleak aukerak baino gehiago izango bait dira seguraski. Ikasle bakoitzak orduan bere taldekoei azaldu beharko die bere aukeraren arrazoiak. Gero taldeko bozeramaile batek taldearen arrazoiak azalduko dizkio gela osoari.

Arrazoiak mila eratakoak izan daitezke eta “gustatzen zaidalako” edo “polita delako” bezalako erantzun arruntetatik ihes egiten saiatu behar da arrazoi pertsonal eta orijinalagoen bila.

- *Nik zumoa aukeratu dut, etxean egunero edaten bait dugu.*
- *Inoiz probatu ez dudalako aukeratu dut nik txakolina.*
- *Nik gaseosa hartu dut, beste inork ez du aukeratu eta.*

Gero serie honetako paperak kendu eta hurrengoa geratzen da agirian. Aukera berria egin behar da. Taldeak desegin eta berriak sortuko dira, azkenetako ikasle guztiak bitan bildu arte.

Komeni da, hori bai, ipintzen diren hitzak arrazoiak emateko egokiak izatea, konnotazio ugarikoak, eta orobat nahiko kontrakoak serie bakoitzaren barruan, horrela interesa handiagotzen bait da.



112.– BIKIAK

MATERIALA:

Argazki egokiak aurkitu.

AZALPENA

Irudi edo argazki sail bat eduki behar dugu (20 bat edo). Tartean batzuk errepikatuak daude. Bi edo hiru bikote izango ditugu beraz. Jokalariak irudi bana hartzen dute eta gero bat berea deskribatzen hasten da. Beste norbaitek berea bezalakoa izan daitekeela susmatzen baldin badu galderak egin ditzake eta seguru samar dagoenean argazkia erakutsi.




Jolasa bikotetan edo talde handiagotan egin daiteke.

Argazkiak aldizkarietatik moztu daitezke, ez da batere zaila izango aldizkari errepikatuak aurkitzea gelako haurren artean, edota fotokopiatu.

Hona hemen marrazki posibleak. Hiruretan bi elementu errepikatzen dira: Mozorro eta telebista.

Galdera posibleak:

- Zure marrazkian telebista apurtuta dago?
- Mozorro telebistaren ondoan dago?
- Mozorro jolasten ari da?
- Mozorro pozik dago?
- ...



(“Ipurbeltz”etik hartuak)

113.- BAKOITZARI BERE



MATERIALA:

Komiki egokiak topatu eta testua kendu ondoren haurrei banatu. Elkarrizketa arbelean idatz daiteke.

AZALPENA

Ikasleak irudi batzuk ditu, baina testurik gabekoak. Irakasleak irudietako esaldiak emango ditu, (ahoz, diktatuz edo idatziz) baina ordena aldaturik.

Ikasleak bakoitza bere tokian jarri beharko du.

Adibidez:


Okel: Zertan diharduzu Pitagora?

Pitagoras: Begira, lanean.

Okel: Lanean? "Homo Sapiens" bat zinela kotan nengoen.

Pitagoras: Baita izan ere! Jakitunena da lan egitea.

Okel: Je! Horrela bada... nahiago dut "HOMO-ASTO" izatea!



(“Kili-kili” tik hartua)

Ondoren haurrak binaka, buruz ikas dezakete elkarrizketa txiki hau eta antzestu.



114.- BESTE ERDIA AURKITU

MATERIALA:

Aldizkarietatik moztutako irudiak, postalak,... erabil daitezke. Txikiekin marrazki eskematikoak badira hobeto.

AZALPENA

Sobreak banatzen dira ikasleen artean. Barruan postal edo irudi baten erdia izango dute. Ikasleek falta zaien erdia nork daukan asmatu beharko dute, baina irudia erakutsi gabe. Horretarako deskribaketa txiki bat egiten da ahoz:

A.– *Ohe baten atzekaldea dirudi, baina atzeko hankak bakarrik ikusten zaizkio.*



B.– *Ui! Ba nik aurreko partea daukat. Katu bat dago lotan, ezta? Burua du bistan.*

A.– Ez dakit. Nerean koltxa koadrotakoa da.

B.– *Bai, bai, horixe da. Asmatu dugu!*

ALDAERA

Irudia zati gehiagotan ebakiz.





115.- HITZ DOMINOA

AZALPENA

Ikasle batek, bururatzen zaion lehen hitza idazten du paperean edo arbelean. Hurrengoak beste hitz bat osatu behar du aurrekoaren letraren bat erabiliz.

```

      E
      S
M U S I K A
      E
      R
      R      Z
A R T O A
      K      T
              O      G
              H A R A G I A
                  B
                  E
                  B E Z A L A
                      A
  
```



116.- HITZ GURUTZATUAK

MATERIALA:

Ariketak prestatu.

AZALPENA

Hitz gurutzatu sinpleak egiteak ez du zailtasun handirik. Banaka edo talde txikitan presta daitezke, eta gero beste lagunei pasatu.

Ez da zertan hitz asko sartu behar, eta forma ere nahiko librea izango da.

Lehenik hitz batzuk "josiko" ditugu:

```


          1      2 3
          O      A
          N      R
1 H O N D A R R A
2      O      A S K O
              T
              O
3              A L D E
  
```

Hori egindakoan hitz bakoitzaren definizio edo pista egokia ematen saiatu behar da:

- ZUTIK: 1. Gaizki ez dagoena
2. Emea ez dena
3. Zaldiaren antzekoa, baina belarri luzekoa.

- ETZANIK: 1. Hondartzan asko izaten da
2. Gutxi ez denean
3. Norbait bidaltzeko esaten da.

Hona gurutzegrama hutsik:



117.- ZUK BADUZU, ZUK EZ



MATERIALA:

Ezaugarriak bilatzea

AZALPENA

Haur batek ezaugarri bat pentsatzen du: ile luzea, adibidez. Gero taldeko besteei esaten die: zuk baduzu, zuk ez.

Galderak ere egingo zaizkio:

- *Andereñoak badu?*
- *Bai*
- *Zaharrek badute?*
- *Eduki dezakete*
- *Eta haurrek?*
- *Jaioberriek ez*
- *Beti edukitzen dugu?*
- *Ez, beti ez*

Hona hemen ezaugarri posible batzuk:

- Anai-arrebak edukitzea
- Praka motzak izatea

- Begi ilunak izatea
- Liburua mahai gainean edukitzea

Eta nahi bada animalien edo gauzen ezaugarriak:

- Isatsa izatea
- Lau hanka izatea
- Tximinia izatea

Ergatiboa (NORK kasua) lantzeko ondo etorri daiteke jolas hau.

ALDAERA

Ezaugarri zailagoak ere aurki daitezke.

Adibidez:

- Eskuan arkatza edukitzea → (Momentu bakoitzean erantzun diferentia izango du: orain BAI, orain EZ)
- Neska baten ondoan egotea



118.- ESALDI ZUZENA IDATZI

MATERIALA:

Esaldiak prestatu.

AZALPENA

Esaldi bateko hitzak deklinabideko atzizkirik gabe eta aditza jokatu gabe ematen dira. Hortik esaldia berreraiki behar da. Hitzak ordenatuz ematea komeni da nahas ez daitezen.

Adibidez:

		Baserritar	kale	joan
Ikasleak osatzeko	→	<i>Baserritarra</i>	<i>Kalera</i>	<i>joan da</i>

Ikasleraren lana errazteagatik, hitzak laukitan bananduak emango dizkiogu, beheko laukietan aldatu behar ez direnak agertuz, lauki libreetan berak idatzi beharko ditu hitz berak, baina kontuz!, deklinatuak eta aditza jokatuz.

Hona hemen adibide batzuk:

		Zu	oso	begi	eder	euki
Ikasleak osatzeko	→		oso			
		Igande	oso	berandu	jaiki	ohe
Ikasleak osatzeko	→		oso	berandu		

119.- IZENBURUAK NAHASI



MATERIALA:

Egunkari, aldizkari eta abarren izenburuak.

AZALPENA

Haur guztiei materiala banatuko zaie. Bakoitzak izenburuetako hitzak nahiz letrak nahasiz, ahalik eta esaldi gehien moldatu beharko du. Ea gelakoen artean zenbat esaldi desberdin moldatzen duten.

Jolas bera taldeka egin daiteke. Hona hemen adibide bat.

Honelako izenburuak erabiliz...

**Asintxio Iparragirre, hamaika
egun tristeren buruan alai bizi
den aitona**

**Eusko Ikaskuntzak ez ditu
eusko Gobernutik 60 milioi
jasoko**

**Hiru mila milioi pasa hego Euskal Herriko
ibaietako hondamendiak konpontzeko**

**Españako Bankuak galera handiak
agian 1984ean**

**Euskal Eskola Publikoaren aldeko jai
eta ihardunaldia Durangon, asteburuan**

Goazen kanposantura

honetako izenburuak osa daitezke:

Hiru mila milioi Eskola kanposantura
Durango bizi den aitonak 60 milioi jasoko ditu
hamaika Euskal jai asteburuan
Goazen 1984ean ibaiak konpontzera
egun tristea
Publiko alaiaren aldeko Bankua



120.- TESTUA OSATU

MATERIALA:

Testuak aurkitu eta hitzak ezabatu, eman nahi zaion zailtasunaren arabera.

AZALPENA

Testu batetik zenbait hitz ezabatu eta ikasleak asmatzen saiatuko dira testuinguru honetan egokiak diren hitzak idatziz.

Hona hemen zailtasun desberdinak dituzten ariketak:

- a) Testu motzak eta erraz osa daitezkeenak.
- b) Testu luzeagoak, osotasunari zentzua ematea eskatzen dutenak.

ALDAERA

Lehenik testu osoa irakurtzen zaie ikasleei, eta gero hutsuneak dituen eman berak osa dezaten.

Memoria eta testuingurua maneiatu beharko ditu ikasleak falta diren hitzak aurkitzeko.

a)

● Mutiko batek tabernariari:

- Emaidazu litro bat ardo.
- Zer nahi duzu, zuria ala beltza?

Eta horrela erantzun zion mutikoak:

- Berdin zaio, itsu batentzat da eta.

● Etxekoandrea etxean al dago?
Ez, ez dago etxean, kanpoan da.
Eta noiz etorriko da?
Itxoin, oraintxe galdetuko diot.

● Neka-neka eginda nago
Egun guztian lotan egon zara, eta nekatuta?
Bai, baina lanean aritu naizela amets egin dut.

● Mutiko batek _____:

- Emaidazu litro bat _____
- Zer nahi duzu, zuria ala _____?

Eta horrela erantzun zion mutikoak:

- Berdin zaio, _____ batentzat da eta..

● Etxekoandrea _____ al dago?
Ez, ez dago etxean, _____ da.
Eta _____ etorriko da.
Itxoin, oraintxe _____ diot.

● Neka-neka eginda nago
Egun _____ lotan egon zara, eta nekatuta?
Bai, baina lanean aritu naizela _____ egin dut.

("Esaera zaharrak eta txiste berriak"etik hartuak, ELKAR 1982)

b) ILARGIAREN PIXUA

Egun batez, praile bat, ilargiak zenbat pixatzen ote zuen pentsatzen zegoen. Horrela zegoela, Fernando pasa zen bere ondotik. Eta esan zion:

- Aizu, Fernando, gauza bat galdetu nahi nizuke
- Badakizu nire jakinduria ez dela oso luzea.
- Zu gizon argia zara eta...
- Zer da ba jakin nahi duzuna?

Praileak horrela agertu zion bere jakin-nahia:

- Askotan egoten naiz ilargira begira eta beti galdera bera etortzen zait burura. Ilargiak zenbat pixatzen ote duen, alegia. Horixe da jakin nahi dudana.

- Hori zuk ere jakin behar zenuke -erantzun zion Pernandok- Hor zabiltzate beti liburu artean eta..., hori ez dakizu oraindik?

- Ba egia esan behar bada, ez dakit. Bestela ez nizun galdetuko.

- Hori gauza erraza da, gizona! Ilargiak kilo bat pixatzen du.

Bai azkar erantzun ere Pernandok. Prailea harriturik geratu zen. Eta geroxeago galdetu zion:

- Baina ilargiak, hain handia izanda, nola pixatuko du, ba, horren gutxi?

- Bai jauna, bai -erantzun zion Pernandok-. Zenbat laurden dauzka ilargiak?

ILARGIAREN PIXUA

Egun batez, praile bat, _____ zenbat pixatzen ote zuen pentsatzen zegoen. Horrela _____, Fernando pasa zen bere ondotik. Eta esan zion:

- Aizu, Fernando, gauza bat _____ nahi nizuke.
- Badakizu nire jakinduria ez dela oso luzea.
- Zu gizon _____ zara eta...
- Zer da ba jakin nahi duzuna?

Praileak horrela agertu zion bere _____:

- Askotan egoten naiz ilargira begira eta beti _____ bera etortzen zait burura. Ilargiak zenbat pixatzen ote duen, alegia. Horixe da _____ nahi dudana.

- Hori zuk ere jakin behar zenuke -erantzun zion Pernandok- Hor zabiltzate beti _____ artean eta..., hori ez dakizu oraindik?

- Ba egia esan behar bada, ez dakit. Bestela ez nizun _____.

- Hori gauza erraza da, gizona! Ilargiak _____ bat pixatzen du.

Bai azkar erantzun ere Pernandok. Prailea _____ geratu zen. Eta geroxeago galdetu zion:

- Baina _____, hain handia izanda, nola pixatuko du, ba horren _____?

- Bai jauna, bai -erantzun zion Pernandok-. Zenbat _____ dauzka ilargiak?

– Lau

– Eta lau laurdenek ez al dute kiloa osatzen, ala?

Honela argitu zuen Pernandok prailearen jakinnahia.

– Lau

– Eta lau laurdenek ez al dute kiloa _____, ala?

Honela argitu zuen Pernandok prailearen jakinnahia.


(“Zipristin 5”etik hartua, ELKAR 1983)



121.– HITZ PUZZLEA

MATERIALA:

Gela 30koa izanik 12 bat sobre binaka errepikatuak. Sobre bakoitzean ebakitako esaldi batzuk sartzen dira. Sobrearen azalean ikur desberdin bat jarriko da (Kolorea, eitea,...) beraz, kolore edo ikur berdineko bina sobre izango dira.



AZALPENA

Haurrak taldeka banatuko dira, 4-5eko taldetan, talde bakoitzean ordezkari bat izendatuko da. Ordezkari honek ordenatutako perpausen kontua eramango du.

Irakasleak sobreak utziko ditu bere mahai gainean, talde bakoitzeko ordezkariak jaiki eta irakaslearen mahai gainetik jasoko du sobre bat, bere taldera eraman, eta taldekoen artean sobre barruko perpausak ordenatuko dituzte. Ordenatu ondoren, irakasleak gainberatuko du.

Haur bakoitzak bere koadernoan idatziko ditu perpausak ordenaturik, ondoren arduradunak beste sobre bat hartuko du irakaslearen mahai gainetik. Horrela sobre desberdin guztietako perpausak osatu arte.

Ahal bada esaldiek ordena posible bat besterik ez dute izan behar. Ordena zuzena igartzen lagunduko duten markak (loturazko hitzak, segida kronologikoa,...) ongi zaindu behar dira ariketak prestatzerakoan.

4.–

1.–

3.–

5.-

2.-

Hitz soilekin ere posible da:

lkasteko	batere	gogorik	ez
nuelako	eskola	utzi	nuen
eta	lanean	hasi	nintzen

Jolasa banaka edo binaka egitea ere interesgarri gertatzen da.



122.- NOLAKO PERTSONAIA?

MATERIALA:

Adjetibo zerrenda eta pertsonaia desberdinen argazkiak.

AZALPENA

Ikasleari pertsonaiaren argazki bat emango diogu, honekin batera adjetibo zerrenda bat, eta pertsonaiari dagozkion adjetiboak erantsiz joango gara. Lehenengo ahoz egitea komeni da, gero idatziz egitera pasatzeko.

Ondoren pertsonaiaren deskribapena egingo du. Kontuan izango ditu aukeratu dituen adjetiboak.

Hona hemen landu daitekeen hiztegi posiblea:

DESKRIBAPEN FISIKOA

DESKRIBAPEN PSIKOLOGIKOA

argal	xarmant	apal	kirten	petral
ahul	zankaluze	alu	ziztrin	tontolapiko
arin	buruhaundi	alfer	goibel	aldrebes
baldar	zahar	atzerakoi	alai	kaskagogor
dotore	gazte	bakarti	ikarati	bihotzbera
erraldoi	zarpail	baketsu	ilun	sentikor
galant	zurbil	berekoi	kexati	egoskor
garratz	hankamotz	boteretsu	kementsu	harro
garbi	beltzaran	burutsu	lotsagabe	lotsati
kaskar	...	ergel	paketsu	lasai
lirain		eztitsu	pentsalari	geldiezin
argi		gezurti	maitagarri	...
ilun		gogaikarri	zuzen	
		atsegin	txepel	

ZER LANDU JOLAS BAKOITZEAN

Liburu honetako jolasak ez daude gehienetan gramatika puntu hau edo hura bereziki lantzeko prestatuak. Hori egin ezkerro jolasaren muin bera behartzeko arriskua bait zegoen, gramatikari behar baino garrantzia handiagoa emanez. Haatik egia da jolasak aprobetxatuz hizkuntza eta hizkuntzaren inguruko gaitasun hainbat jorra daitezkeela. Ondoan ematen dugun zerrendatxoak horretarako gida sinple bat besterik ez du nahi izan.

A.- ASMAKIZUNAK

- 1.- Deklinabide kasuak, Hiztegia
- 2.- Hiztegia (sustantiboak)
- 3.- Hiztegia (Jangaien izenak...)
- 4.- Galde-erantzunak
- 5.- Nork kasua
- 6.- Non kasua, Hiztegia (sustantiboak)
- 7.- Hiztegia, Ahozkoaren Ulermena
- 8.- -ko mina
- 9.- Hiztegia (sustantiboak)
- 10.- Hiztegia (aditzak)
- 11.- Galde-erantzunak, Mimika
- 12.- Hiztegia (sustantiboak)
- 13.- Irakurmena (idatziaren ulermena)
- 14.- Ahozkoaren Ulermena
- 15.- Ahozkoaren Ulermena, Nork
- 16.- Hiztegia (sustantiboak), Obserbazioa
- 17.- Hiztegia (sustantiboak), Galde-erantzunak
- 18.- Ahozko Deskribapena (haur batena)
- 19.- Mintzamena (kartak eskatu)
- 20.- Hiztegia
- 21.- Ahozko Deskribapena
- 22.- Ahozko Deskribapena (pertsona batena)
- 23.- Ahozko Deskribapena (marrazki batena)
- 24.- Ahozko Deskribapena (marrazki batena)
- 25.- Ahozkoaren Ulermena
- 26.- Ahozkoaren Ulermena, Ahoskatzea
- 27.- Hiztegia (sustantiboak)
- 28.- Hiztegia (sustantiboak)

B.- AGINDUZKOAK

- 29.- Ahozkoaren Ulermena
- 30.- Ahozkoaren Ulermena
- 31.- Ahozkoaren Ulermena
- 32.- Irudimena, Ahozkoaren Ulermena
- 33.- Arreta, Ahozkoaren Ulermena
- 34.- Irudimena, Ahozkoaren Ulermena
- 35.- Irudimena, Ahozkoaren Ulermena
- 36.- Espazio-kontzeptuak
- 37.- Irakurmena (idatziaren ulermena)

- 38.– Ahozko Deskribapena, Ulermena
- 39.– Ahozkoaren Ulermena (perpaus erlatiboak, konpletiboak...)

C.– ZORTEZKOAK

- 40.– Norentzat, Norena
- 41.– Hiztegia (animaliak, ogibideak)
- 42.– Hiztegia (gorputzaren atalak)
- 43.– Hiztegia (gelako txokoak)
- 44.– Hiztegia, Nor-Nori-Nork adizkiak
- 45.– Oroimena, Ahoskatzea

D.– ANTZEZTEKOAK

- 46.– Mintzamena (eztabaidatu)
- 47.– Mintzamena (Konbentzitu)
- 48.– Mintzamena (erosketak egin)
- 49.– Mintzamena (informazioa eskatu)
- 50.– Eguraldiaren hiztegia
- 51.– Mintzamena (iritziak eta gustoa adierazi)
- 52.– Mintzamena (nahiak adierazi)
- 53.– Entonazio desberdinak
- 54.– Hiztegia (etxeko lanak)
- 55.– Ezezko esaldiak
- 56.– Mintzamena (erabakiak hartu)
- 57.– Irudimena, Azalpenak eman
- 58.– Telefonoz hitz egin
- 59.– Ahozkoaren Ulermena. Azalpenak eman
- 60.– Mintzamena (informazioa eskatu)
- 61.– Elkarriketa, Hariari jarraitu

E.– MEKANIKOAK

- 62.– Hiztegia, Deskribapena
- 63.– Ordezkapenak, Ezeztapenak
- 64.– Irakurmena, Informazioa eskatu, eman
- 65.– Eguraldiaren hiztegia
- 66.– Nork, Norekin...
- 67.– Gauzak sailkatu
- 68.– Irakurmena (eskutitzak ulertu)
- 69.– Perpaus kausalak (-lako)
- 70.– Mintzamena (konparaketak)
- 71.– Hiztegia (adjetiboak, aditzak...)
- 72.– Mintzamena (nahiak adierazi), Joan/Joatea desberdintasuna
- 73.– Kodeen erabilera
- 74.– Hiztegia, Arreta

F.– KANTUAK

- 75.– Ahoskatzea, Erritmoa
- 76.– Ahoskatzea (tt, x, tz), Erritmoa

- 77.– Psikomotrizitatea, Erritmoa
- 78.– Psikomotrizitatea, Erritmoa
- 79.– Arreta, Entzumena
- 80.– Erritmoa
- 81.– Norendako
- 82.– Erritmoa, Jolas herrikoia
- 83.– Erritmoa
- 84.– Ahoskatzea, Entonazioa, Oroimena
- 85.– Ahoskatzea (s-z, l-r,...)
- 86.– Neurri jakineko sintagmak osatu
- 87.– Neurri jakineko sintagmak osatu
- 88.– Koplak osatu
- 89.– Esaldiak errimatu
- 90.– Esaera jatorrak ikasi
- 91.– Ahoskatzea

G.– KONTAKIZUNAK

- 92.– Irudimena, Hariari jarraitu
- 93.– Irudimena, Hiztegia
- 94.– Mintzamena (-teko, -tera,...)
- 95.– Irudimena, Hari bati jarraitu
- 96.– Mintzamena (esplikazioak eman, irtenbidea aurkitu)
- 97.– Irudimena, Idazmena
- 98.– Idazmena
- 99.– Idazmena, Mintzamena (jendaurreko azalpenak)
- 100.– Idazmena
- 101.– Arreta, Ahozkoaren Ulermena
- 102.– Baldintzak Irudimena
- 103.– Perpaus bakunaren joskerak, Direkzionalitatea

H.– HAUSNARTZEKOAK

- 104.– Hiztegia (eremu semantikoak)
- 105.– Hiztegia
- 106.– Hiztegia (eremu semantikoak)
- 107.– Hiztegia (adjetiboak, aditzak...)
- 108.– Hiztegia (sustantiboak)
- 109.– Hiztegia
- 110.– Irakurmena (idatziaren ulermena)
- 111.– Mintzamena (arrazoiak adierazi)
- 112.– Deskribapen zorrotza
- 113.– Irakurmena (idatziaren ulermena)
- 114.– Deskribapena, Ahozkoaren Ulermena
- 115.– Hiztegia
- 116.– Hiztegia, Idazmena (definizioak eman)
- 117.– Ezaugarriak bilatu
- 118.– Hitzak deklinatu, Aditzak jokatu
- 119.– Irakurmena, Joskera
- 120.– Irakurmena, Hipotesiak konprobatu
- 121.– Irakurmena (idatziaren ulermena, parrafoen egitura)
- 122.– Deskribapena, Hiztegia (adjetiboak)

BIBLIOGRAFIA

Gisela Rittersen. *Colección de juegos de preescolar.* Ed. Interduc/Schroedel, 1977.

L. Pozuelo, C. Sánchez, L. Louzao. *Didáctica para la clase de idioma.* Educación hoy. ED. Narcea, S.A., 1981.

Freudenreich - Crasser - Koberling. *Juegos de actuación dramática.* Ed. Interduc/Schroedel, 1979.

Marcos Monfort - A. Juárez. *El niño que habla.* Ed. Nuestra Cultura. Madrid, 1980.

A. Ali Bonacha. *La pedagogie du français langue étrangère.* Ed. Hachette, 1978.

Resurrección M^a de Azkue. *Euskal-erriaren Yakintza III. eta IV. aleak.* Ed. Espasa Calpe, S.A. Madrid, 1971.

Ipurbeltz aldizkaria.

Kili-Kili aldizkaria.

Grupo Etniker - Bizkaia y L.A. Esteban Guereca. *Juegos y Canciones infantiles.* Caja de Ahorros Vizcaína, 1979.

Sara Throop. *Actividades preescolares. Lenguaje.* Ed. CEAC, 1980.

José D. Forgione. *Cómo se enseña la composición.* Ed. Kapelusz, 1969.

Denise Sadek - Khalil. *Un test de Lenguaje.* Ed. Médica y Técnica, S.A., 1981.

Alice Delaunay etab. *La Educación preescolar.* Ed. Cincel - Kapelusz, 1980.

S. Fernández. *Conquista del lenguaje en preescolar y ciclo preparatorio.* Ed. Narcea, S.A. 1980.

A. Andraud. *¿Cómo Hacer?...
Los ejercicios del lenguaje en el parvulario.* Ed. Médica y Técnica, 1981.

HABE. *Euskararen Irakaskuntzarako Ariketak.* 1982.

HABE. *ZUTABE aldizkaria.*

Herrerako Ikastola. *Euskara Lantzeko Jolasak.*

C. Kamii, R. Devries. *Juegos de Grupo.* 1980.

Aise Taldea. *Euskal Jolasean. Jolasean Jolastu.* Adarra 16.

AEK. *Joko eta ariketa bilduma.* 1984.

AEK. *Urraspide aldizkariak.*

Renzo Titone. *Bilingües a los tres años.* Ed. Kapelusz.

Carmen y María Aymerich. *Para un lenguaje expresivo del niño.*
Colección Navidad 61. Hogar del libro. Barcelona, 1981.

Anjel Lertxundi. *Haur literaturaz.* Erein, 1982.

Empar de Lanuza - Carlos Pérez - Victoria Ferrando. *El juego popular aplicado a la educación.* Biblioteca de psicología y educación. Ed. Cincel - Kapelusz, 1980.

Laurence Lentin. *Enseñar a hablar.* Ed. Pablo del Río, 1977.

J. Billant - G. Droune - A. Fouliard - S. Sauvy. *El niño descubre su lengua materna.* Ed. Cincel - Kapelusz, 1982.

Elfriede Pausewang. *Juegos didácticos para realizar con niños de 3 a 8 años.* Ed. Kapelusz, 1980.

G. Rodari. *“Gramática de la Fantasía”.* Ed. Reforma de la Escuela. Barcelona, 1979.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

EUSKARA ZERBITZUA

Argitalpenak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak
2. Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak
3. Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala
4. Hizkuntzen Irakaskuntza: Neurpideak (prestatzen)
5. Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu (prestatzen)
6. Haurrak Euskalduntzen Giñolaren bidez. Kukubiltxo Taldea
7. Euskararen Gaitasun Agiria: Programa
8. Euskaltzaindiak Batasunerako eskaini dituen erabakiak
9. Haurrak euskalduntzen Giñolaren bidez II. Itzaropena M. de Lezea
10. Ipuin zahar eta berriak. Lurdes Iriondo
11. Jolasean. Imanol Urbietak
12. Amonaren Ipuinak. Enkarni Genua
13. Ipuin gehiago. Lertxundi - Lukas - Keinu - Maskarada
14. Eskolarako ipuinak eta txotxongiloak. Itzaropena M. de Lezea
15. Hizkuntz Jolasak.

HIZKUNTZ-PRESTAKUNTZA:

1. Bizkaieraren idatzizko arauak



Hizkuntz jolasak

EK15010122

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA